

2025EKO URRIAREN 30EAN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.

LEKUA: Beasaingo Udaletxea

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hogeita hamarra

HILABETEA: Urria.

URTEA: Bi mila eta hogeita bost.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seietan.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: LEIRE ARTOLA UGALDE

BILDUAK:

EAJ-PNV

- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AINHOA ARRESE ARRATIBEL
- MARIOLA PASCUAL PAREDES
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- MICHEL VENTUREIRA IRIZAR
- OLATZ ARRESE IMAZ
- AITOR ALDASORO ITURBE

BEASAINGO EH BILDU

- HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR
- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ
- IKER URTEAGA REBOLLAR
- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

SOCIALISTAS VASCOS-EUSKAL SOZIALISTAK

- EVA ALVAREZ ATANES
- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE

- WESLEY ARITZ CORSITTO AGIRRE

IDAZKARIA: ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

Bileran ere parte hartu dute Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak eta Lurdes Auzmendi interpretariak.

1.- AURREKO AKTAK. 2025-09-29ko aktaren onespena.

Aritz Corsitto Agirre zinegotziak adierazi du pozten dela aurreko bileran emandako eztabaida, hain zuzen ere, herritarrek plenoko bilerak grabatzeko duten aukera argitu izana, aktak idatzizkoak izanik eta hitzez hitz jasotzea zaila izanik, grabaketak lagundu egiten dutelako esandakoa bermatzeko.

Aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da, inolako zuzenketarik aurkeztu ez delako.

2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- ORDENANTZA FISKALAK ETA PREZIO PUBLIKOAK. ALDAKETA. 2025APTF0001

Alkate andreak ezagutzera eman du, Antolakuntza batzordeko proposamena, hau da:

“Antolakuntza Batzordeak, 2025ko urriaren 23an egindako bileran, Udalbatzaren onespenerako Ordenantza fiskalen eta Prezio Publikoen aldaketei buruzko erabaki-proposamena aurkeztea erabaki du.

Ordenantza fiskalek eta Antzizar Kiroldagiko prezio publikoek 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dute eragina.

Prezio publiko berriak eta egun dauden aldaketak (Usurbe antzokia) G.A.O.ean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean.

Etkez etxeko laguntza zerbitzuaren tasari dagokionez, etkez etxeko laguntza zerbitzuaren araudi berriaren testu osoa onartu eta G.A.O.ean argitaratu ondoren sartuko da indarrean.

ERABAKI PROPOSAMENA

LEHENIK.- ONDORENGO ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETAK ONARTZEA:

1.- ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA:

1.- Ordenantza arautzailearen 8.b) artikuluan jasotako hobaria aldatzea. Honela geratzen da:

“d) Zergaren gaineke hobaria, subjektu pasiboak familia ugarien titularrak direnean eta egoera hori frogatzen duten bitartean.

Emakidaren balio-denbora: urtea.

Eskaria aurkezteko epea: urtarrilaren 1etik 31ra.

Emakidarako baldintzak:

- Eskari-orria Beteta aurkeztea.

- Titularrak edota onuradunak ohiko etxebizitza denez kanpo beste ondasun higiezinaren jabe ez izatea (ez jabetza osoan ez eta partzialean ere), garaje bat, trasteleku bat eta dagokion kasuan, bere jarduera profesionalaren lokala izan ezik.

Hobaria etxebizitzari dagokion kuotaren gainean aplikatuko da soilik, zergaren ordainagiriak etxebizitzaz gain garaje, trasteleku etab. jasoko balitu ere.

Familia errenta estandarizatuaren arabera kalkulatu dira hobarien portzenjeak. Sistema hau uztailaren 24ko 154/2012 dekretuan dago araututa, eta martxoaren 17ko 31/2015 Dekretuan aldatzen da.

Errenta familiar estandarizatua kalkulatzeko, errenta familiarra (zerga oinarri orokorra gehi PFEZko aurrezki zerga-oinarria) zati unitate familiarren baliokidetasun koefizientearen egin behar da:

Eskatzailea izateko ezkontide edo bikotekidearekin: 1,5.

Izateko ezkontide edo bikotekiderik gabe: 1,3.

Genero-indarkeriaren biktima: 1,3.

Unitate familiarreko seme-alaba bakoitza: 0,3.

Unitate familiarreko kideren bat %33ko edo gehiagoko desgaitasuna onartua duela: 0,3.

Hobarien portzentajeak ondorengoak izango dira:

Familia errenta estandarizatua: 10.000,00 € baino gutxiago 90 %

Familia errenta estandarizatua: 10.000,01 €tik 20.000 €tara 40 %

Familia errenta estandarizatua: 20.000,01 €tik 30.000,00 €tara 20 %

Familia errenta estandarizatua: 30.000,00 € baino gehiago 0 %

Hobariak kudeatzeko 39/2015 Legearen 28. artikulua eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikulua, Beasaingo Udalak hobaria eskuratzeko baldintzak betetzen diren ala ez zehazteko informazio hau kontsultatuko du zuzenean (interesdunak aurka egiten ez badu) NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez:

Foru Ogasuna: Familia ugaria osatzen duten kide guztien PFEZ kontsulta edo, PFEZren aitortzea aurkezteko behartuta ez egotearen ziurtagiria.

Eusko Jaurlaritza: Familia ugariaren tituluen kontsulta.

Foru Ogasuna: Halakorik balego, desgaitasuna edo mendekotasun egoera egiaztatzeke ziurtagiri eguneratua.

AGE: Katastroko Zuzendaritza Nagusia Katastro datuen kontsulta.

Foru Ogasunak: Foru Ogasunak-Ondasun Higiezinak kontsulta.

Arabako Foru Aldundia: Arabako Foru Aldundia-Ondasun Higiezinak kontsulta.

Bizkaiko Foru Aldundia: Bizkaiko Foru Aldundia-Ondasun higiezinak kontsulta.

Gipuzkoako Foru Aldundia: Gipuzkoako foru Aldundia-Ondasun higiezinak kontsulta.

Dena den, Udalak eskaera jasotako unean beharrezkoa den dokumentazioa ezin badu modu telematikoan lortu informatika arazo bat medio, eskatzaileak aurkeztu beharko du dokumentazioa espedientearen kudeaketarekin jarraitu ahal izateko.

Datuak Babesteko 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikuluen arabera, eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal izango du, eta aurka egiteko arrazoiak alegatu beharko ditu; kasu horretan, udalak dagozkion dokumentuak aurkezteko behartu ahal izango du salbuespena edota hobaria kudeatzeko.

Udalak ziurtatuko du familia ugariaren kide guztiak udal zorrik ez duela.

Hobari hau bateraezina izango da Ondasun Higiezinak gainera Zerga aplikagarri den beste edozein hobarirekin."

2.- Hiri-ondasun higiezonei zein landa-ondasuneiei aplikatu beharreko karga-tasa % 2,8 (Abuztuko Euskadiko KPI) handitzea, honela geratuz:

TIPOA

Hiri-Ondasun Higiezenen gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa

0,2221%

Landalur-Ondasun Higiezenen gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa

0,8272%

2.- TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA:

Tarifa guztiak %2,8 handitzea proposatzen da, honela geratuz:

A) TURISMOAK	Koef.	<u>Euro</u>
9 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	1,5923	29,28
9tik 11,99 zaldi fiskaletara bitartekoak	2,1716	79,87
12tik 13,99 zaldi fiskaletara bitartekoak	2,4379	149,45
14tik 15,99 zaldi fiskaletara bitartekoak	2,1716	186,36
16tik 19,99 zaldi fiskaletara bitartekoak	2,0268	223,63
20 zaldi fiskal eta gorakoak	2,0278	273,47
B) AUTOBUSAK		
21 plaza baino gutxiagokoak	2,2373	186,36
21etik 50 plaza bitartekoak	2,2365	265,34
50 plaza baino gehiagokoak	2,2362	331,63
C) KAMIOAK		

1.000kg. baino gutxiagoko karga erabilgarrikoak	2,2357	94,52
---	--------	-------

1.000tik 2.999kg.tara bitarteko karga erabilgarrikoak	2,2373	186,36
---	--------	--------

3,000tik 9.999kg tara bitarteko karga erabilgarrikoak	2,2365	265,34
---	--------	--------

9.999kg. baino gehiagoko karga erabilgarrikoak	2,2362	331,63
--	--------	--------

D) TRAKTOREAK

16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	2,2428	39,63
------------------------------------	--------	-------

16tik 25 zaldi fiskaletara bitartekoak	2,2336	62,03
--	--------	-------

25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	2,2373	186,36
-----------------------------------	--------	--------

E) ATOI ETA ERDI-ATOIAK

750 kg.tik gora eta 1000 baino gutxiagoko karga erabilgarrikoa	2,2428	39,63
--	--------	-------

1.000tik 2.999kg tara bitarteko karga erabilgarrikoak	2,2336	62,03
---	--------	-------

2.999kg. baino gehiagoko karga erabilgarrikoak	2,2373	186,36
--	--------	--------

F) GAINERAKO IBILIGAILUAK

Ziklomotoreak	2,1853	9,86
---------------	--------	------

125 cc.bitarteko motozikletak	2,1853	9,86
-------------------------------	--------	------

125 cc-tik 250 cc-ra bitarteko motozikletak	2,2022	17,00
250 cc-tik 500 cc-ra bitarteko motozikletak	2,1857	33,77
500 cc-tik 1.000 cc-ra bitarteko motozikletak	2,1941	67,80
1.000 cc-tik gorako motozikletak	2,1938	135,56

3.- HIRI-LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA

Sortzapenaren unean lurraren balioari, gehikuntza sortzen den aldiaren arabera aplikatu beharreko koefizienteak aldatzea. Koefiziente horiek zerga hori arautzen duen ordenantza fiskalaren eranskinean daude jasota, eta honela geratuko dira:

ERANSKINA Koefizienteak

Sorreraldia / Urtebetetik behera

Urte bat	0,16
2 urte	0,15
3 urte	0,15
4 urte	0,15
5 urte	0,16
6 urte	0,18
7 urte	0,2
8 urte	0,22
9 urte	0,23
10 urte	0,21
11 urte	0,16
12 urte	0,13
13 urte	0,11
14 urte	0,1
15 urte	0,1
16 urte	0,1
17 urte	0,12

18 urte	0,16
19 urte	0,22
20 urte edo gehiago	0,35

ZERGA TIPOA

Zerga tipoa	7,20%
-------------	-------

4.- ERAIKUNTZA, OBRA ETA INSTALAZIOEN GAINEKO ZERGA

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen Ordenantzaren testua eguneratzea proposatzen da.

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.-

Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 15/1989 Foru Arauan aurreikusitakoarekin bat etorriz, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga ezarri eta galdatzen du Ordenantza honen arabera. Ordenantza honen parte da aplikatu beharreko tarifak jasotzen dituen Eranskina.

2. Artikulua.-

Ordenantza hau udal barruti osoan aplikatuko da.

II. EGITATE ZERGAGARRIA

3. Artikulua.-

Zerga honen zergapeko egitatea obra- edo hirigintza-lizentzia eskatzen duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea da, lizentzia hori lortu edo ez, edo erantzukizunpeko adierazpena edo alde aurreko jakinarazpena aurkeztea eskatzen duena, betiere lizentzia edo kontrol-jarduera ematea udal honi badagokio.

4. Artikulua.-

Zerga hau sortzen duten ekintzen zerrenda hau adierazpenekoa da, ez da beraz, zerrenda itxia:

1.- Solairu berridun mota guztietako eraikuntza edo instalazioetako eraikitze-obrak.

2.- Lehendik dauden mota guztietako eraikinak edo instalazioak handitzeko obrak.

3.- Lehendik dauden mota guztietako eraikin eta instalazioen egiturari eragiten dioten aldaketak edo eraberritzeak.

4.- Mota guztietako eraikin eta instalazioen kanpoko itxura aldatzeko eta birgaitzeko obrak.

5.- Eraikinen barne-antolamendua aldatzen duten obrak, horien erabilera edozein dela ere.

6.- Lurzoruaren Legearen testu bateginaren 58. Artikuluko 2. atalean aipatzen diren behin-behineko obrak.

7.- Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.

8.- Lur-mugimenduak, hala nola lur-erazketak, lur-berdinketak, hondeaketak eta lur-lautadak, salbu eta ekintza horiek onartutako edo baimendutako urbanizazio- edo eraikuntza-proiektu batean gauzatu beharreko obra gisa zehaztuta eta programatuta badaude.

9.- Eraikinak eraistea, berehalako aurri-deklarazioen kasuan izan ezik.

10.- Lurpeko instalazioak, , besteak beste erabilera hauek dituztenak: aparkalekuak, industria-, merkataritza- edo lanbide-jarduerak, zerbitzu publikoak edo lurpeari emandako beste edozein erabilera.

11.- Bide publikotik ikusteko moduko propaganda-kartelak jartzea.

12.- Ahalmen ekonomikoa erakusten duten eta obra- edo hirigintza-lizentzia behar duten baliabide ekonomikoen inbertsioa eskatzen duen edozein obra, eraikuntza edo instalazio.

III. ZERGARI EZ LOTUAK

5. Artikulua.-

1. Jabari titulartasuna Udalarena duten higiezinetan egin daitezkeen obra, eraiketa edo instalazioak ez dira egongo zerga honi lotuta.

2. Zergaren ordainketatik salbuesten da Estatua, autonomia-erkidegoak, lurralde historikoak edo toki-erakundeak jabe diren edozein eraikuntza, instalazio edo obra, baldin eta horiek, zergari lotuta egonik, zuzenean errepideetara, trenbideetara, portuetara, aireportuetara, obra hidraulikoetara, herrien eta horien hondakin-uren saneamendura bideratuko badira, nahiz eta erakunde autonomoek kudeatu, inbertsio berriko obrak izan nahiz kontserbaziokoak izan.

IV. SUBJEKTU PASIBOAK

6. Artikulua.-

1. Zerga honen subjektu pasiboak, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 35. Artikuluaren 3. atalean aipatzen diren entitateak, bai eta testamentu-ahalordea egikaritzeko zain dauden jarauntsiak ere, betiere eraikinaren, instalazioaren edo obraren jabe badira, hura egiten den higiezinaren jabe izan edo ez.

2. Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondoreetarako, eraikuntza, instalazio edo obraren jabetzat hartuko da hura gauzatzeak dakartzan gastuak edo kostuak ordaintzen dituenak.

3. Udal Administrazioaren aurrean fidemaileki frogatzen ez bada obraren jabe izaera ez dagokiola obra egiten den higiezinaren jabeari, beste pertsona edo entitate bati baizik, ulertuko da higiezinaren jabea dela arduraduna.

7. Artikulua.-

1. Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez duenean, zergadunaren ordezkotik subjektu pasibotzat hartuko dira lizentziak eskatzen dituztenak, erantzukizuneko aitortpenak

edo aurretiazko komunikazioak aurkezten dituztenak edo eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten dituztenak.

Ordezkoak ordaindutako zerga kuotaren zenbatekoa exijitu ahal izango dio zergadunari.

2. Udal-administrazioak aukera izango du zergadunaren ordezkari eskatzeko jakinaraz dezala zein den zergadun-izaera duen pertsonaren edo entitatearen izena eta helbidea.

V. ZERGA OINARRIA

8. Artikulua.-

1. Eraikuntza, instalazio edo obraren egiazko kostu eraginkorrak osatzen du zergaren oinarri ezargarria, eta, ondorio horietarako, egiazko kostu eraginkorra gauzatze materialaren kostua da.

Ez dira zerga-oinarrian sartzen, BEZa eta antzeko gainerako zergak, tasak, prezio publikoak eta tokiko ondare-prestazio publikoak, ordainsari profesionalak, kontratistaren enpresa-onura, ez eta gauzatze materialaren kostua hertsiki osatzen ez duen beste edozein kontzeptu ere.

2. Udal-lizentziarik gabeko eraikuntza, instalazio eta obren kasuan, udal-administrazioak finkatuko du zerga-oinarria.

VI. ZERGA-KUOTA

9. Artikulua.-

Zerga oinarriari Eranskinean adierazitako zerga-tasa aplikatuta lortuko da zerga-kuota.

VII. SORTZAPENA

10. Artikulua.-

Eraikuntza, instalazioa edo obra hastean sortuko da zerga, haiei dagokien lizentzia eman gabe badago ere.

VIII. KUDEAKETA

11. Artikulua.-

Lizentzia eman edo erantzukizuneko aitortpena zein aurretiazko komunikazioa aurkezten bada, edo, lizentzia oraindik eskatu, eman edo ukatu gabe egonik edo aitortpena zein komunikazioa oraindik ez aurkezturik, eraikuntza, instalazio edo obra hasten bada, behin behineko likidazio bat egingo da, oinarri ezargarria honela kalkulatuta:

a) Interesdunek aurkeztutako aurrekontuaren arabera, baldin eta dagokion elkargo ofizialak oniritzia eman badio, nahitaezko baldintza denean.

b) Beste kasuetan, udal-teknikariek zehaztuko dute zerga-oinarria, proiektuaren kostu zenbatetsiaren arabera.

12. Artikulua.-

Lizentzia eman ondoren, hasierako proiektua aldatzen bada, behin-behineko likidazio berria egiteko aurrekontu berria aurkeztu beharko da; proiektu aldatuaren arabera, lehenbiziko likidazioaren zenbatekoa gaingiditzen duen kopuruaz

13. Artikulua.-

1. Benetan egindako eraikuntzak, instalazioak edo obrak eta euren benetako kostua ikusiz, udal-administrazioak, bidezko administrazio-egiaztapena eginda, aldatu egingo du, egoerak hala eskatzen badu, oinarri zergagarria, bidezko behin betiko likidazioa eginez eta dagokion zenbatekoa subjektu pasiboari eskatuz edo, beharrezkoa bada, itzuliz.

2. Aurreko atalean xedatuaren ondorioetarako, obra bukatu edo behin-behineko onartu eta ondorengo lehen hilabetearen barruan, inguruabar honen aitorpena aurkeztuko da udal-administrazioak eskuragarri jarriko duen inprimakian, obraren zuzendari fakultatiboaren ziurtagiriarekin, ahal denean dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsita, non ziurtatuko den obraren kostu osoa, bertan sartuz zuzendaritzaren eta proiektuaren eskubide fakultatiboak, etekin industrialak eta obraren ondoriozko beste batzuk.

14. Artikulua.-

Zergaren likidaziorako, administrazioak lizentzia emateko isiltasun positiboa erabiliko balu, lizentziak, espreski emango balu bezala balioko du.

15. Artikulua.-

Udalak autolikidazio erregimenean eskatu ahal izango du zerga hau.

16. Artikulua.-

Zerga-alorreko Foru Arau Orokorrean eta uztailaren 5eko, 15/1989 Foru Arauan, Eraikuntza, Instalazio eta Obraren gaineko zergen xedatutakoa beteko da Ordenantza honek araututako zerga kitatzeko, biltzeko eta ikuskatzeko, baita zerga-arauen urraketak kalifikatzeko eta horiei dagokien zehapenak erabakitzeko ere.

17. Artikulua.-

Lizentzia baten titularrak uko egiten badio berariaz eta idatziz baimendutako obrak, eraikuntzak edo instalazioak egiteari, udalak itzuli edo erabat suntsiaraziko du behin-behineko likidazioa.

18. Artikulua.-

Lizentziaren bat iraungiz gero, udalak itzuli edo suntsiarazi egingo du likidazioa, baldin eta lizentziaren titularrak hura berritzeko eskatu eta udalak luzapena onartzen badio.

IX. HOBARIAK

19. Artikulua.-

a) 100eko 95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena eta hobararen ehunekoa Udal Batzarrek onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

Udalarentzat interes berezikotzat izendatzea, hobari honetaz gozatu ahal izateko:

1.- Berriak ez diren eta halako elementurik ez duten higiezinetan igogailuak, arrapalak, plataforma jasotzaileak eta antzeko elementuak jartzea. Ez zaie izendapen hori ematen etxebizitzaren barruan elementu horiek instalatzeko obrei. Hobaria: % 95.

2.- Udalarekin batera, kultura eta kirol jarduerak burutzen dituzten udal elkarteek, bere jarduerak aurrera eramateko dituzten lokaletan, egiten dituzten obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatzea (2012-04-26ko Udalbatzaren erabakia):

- Bakarrik, kultura eta kirol jarduerak burutzeko lokaletan egindako obrak: %95.

- Kultura eta kirol jarduerak bakarrik burutzen ez diren lokaletan egindako obrak: %45.

3.- 2006-12-29 Aginduaren eta ondorengo aldaketetan (ETXEBIZITZAK BIRGAITZEKO 2013-2016 ALDIRAKO RENOVE PLANA) araututako laguntzak (dirulaguntza edota mailegua) jaso dituzten obra edo jardunak. Hobaria: %95.

4.- Aisiarako gazteen lokaletan egiten dituzten obrak. Hobaria: %95.

5.- Ondorengo hezkuntza zentroek egiten dituzten obrak: Beasaingo Institutua BIP, Seaska Haurreskola, Alkartasuna Lizeoa, Murumendi ikastetxea, Andramendi ikastola, La Salle-San Jose ikastetxea eta A.E.K. Hobaria: %95.

b) %90eko hobaria, eraikuntza, instalazio edo obrek pertsona ezindu edo mendekotasuna duten pertsonen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak errazten dituztenean.

Eskatutako dokumentazioa:

- Eskaera behar bezala beteta.

-Mendekotasuna edo minusbaliatasun maila aitortzen duen ebazpena.

- Gipuzkoako Foru Aldundiak igorritako laguntza teknikoa jasotzearen aldekoa den orientazio-txostena.

c) %95eko hobaria, baldin eta eraikuntza, instalazio edo obretan eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzen badira autokontsumoari edo autoekoizpenari begira. Dena den, hobari hau aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da beroa sortzeko instalazioak Administrazio eskudunak homologatutako kolektoreekin hornituta egotea eta instalazioa borondatezkoa izatea eta ez araudiak hala behartutakoa.

d) 100eko 50eko hobaria, babes publikoko etxebizitza berrien eraikuntzarako.

Babes publikoko etxebizitzak izango dira, araubide bereziko (sozialak), orokorreko eta tasatuko (autonomikoak eta udaletakoak) babes ofizialeko etxebizitzak.

Babes publikoko etxebizitzatzat hartuko dira lurraldeetako herri-erakundeek publikoki sustatutakoak edo modu pribatuan sustatutakoak, martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuan jasotako xedapenen arabera.

Aurreko hobariak, elkarren artean, batera ezinak izango dira.

%2 zerga tipoaren aplikazioari dagokionez, etxebizitzaren birgaiketa eta merkataritza lokalen modernizatzea ondoren adierazten den moduan ulertzen da: erreforma lanak suposatzen dutelarik, %50 baino gehiagoko egitura-elementuak afektatzen ez dituztenean eta goi mailako teknikoaren proiektua behar ez denean.

Jarduera berria jartzeko edota jarduera aldatzeko, lokaletan itxuratze lanak egin behar direnean, %5eko tipo orokorra aplikatuko da.

X. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta bere Eranskinak, 2026ko urtarrilaren 1ean jarriko dira indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

ERANSKINA

TIPOAK

Etxebizitzak eta egoitza-eraikinak

5,00%

Merkataritza eraikuntzak

5,00%

Eraikin industrialak

5,00%

Landalur eraikinak edo Nekazar probetxamenduzkoak

5,00%

Erauzketak

5,00%

Etxebizitzan birgaiketa eta merkataritza lokalen modernizatzea, 55 urte baino gehiagoko antzintasuna duten eraikinetan

2,00%

5.- ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI EDO JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIKO TASAK

Ondoren zerrendatzen diren eranskinak eguneratzea proposatzen da.

ALDATZEA PROPOSATZEN DIREN
ERANSKINAK

5.1.- Eranskina: Baimenak eta dokumentuak emateagatik

Zeuden tasei %2,8ko igoera aplikatzeko proposamena egiten da, ondoren adierazten moduan geratuz

TASA	<u>EUROS</u>
<i>Certificaciones de acuerdos y documentos que existan en las Oficinas Municipales relativas al último quinquenio, por cada hoja</i>	1,42
<i>Después de cada cinco años, por hoja</i>	3,41
<i>Fotocopias DINA4 blanco y negro</i>	0,11
<i>Fotocopias DINA3 blanco y negro</i>	0,16
<i>Fotocopias DINA2 blanco y negro</i>	1,06
<i>Fotocopias DINA1 blanco y negro</i>	2,11
<i>Fotocopias DINA0 blanco y negro</i>	4,22
<i>Fotocopias DINA4 color</i>	0,53
<i>Fotocopias DINA3 color</i>	1,06
<i>Fotocopias DINA2 color</i>	5,28
<i>Fotocopias DINA1 color</i>	10,56

<i>Fotocopias DINAO color</i>	<i>21,12</i>
<i>Si las fotocopias anteriores requieren escanear previamente el documento, el precio anterior se incrementa en un 50%</i>	
<i>Segregación de locales y viviendas</i>	<i>123,36</i>
<i>Consultas urbanísticas</i>	<i>41,12</i>
<i>Certificados Urbanísticos</i>	<i>63,35</i>
<i>Por cada copia en CD de plano digitalizado en AU1</i>	<i>33,78</i>
<i>Copia atestado Policía Municipal</i>	<i>14,19</i>
<i>Copia informe Policía Municipal</i>	<i>7,13</i>
<i>Reposición carnet de biblioteca</i>	<i>4,32</i>
<i>Tarjeta de acceso al Aula de estudio:</i>	<i>5,14</i>
<i>Tarjeta de acceso al Centro Urbiete:</i>	<i>5,14</i>
<i>Expedición de la tarjeta de locales de creación de Antzizar</i>	<i>5,14</i>
<i>Por hoja impresa en la biblioteca</i>	<i>0,10</i>
<i>Licencia tenencia animales peligrosos</i>	<i>25,70</i>
<i>Renovación licencia tenencia animales peligrosos</i>	<i>25,70</i>
<i>Inscripción en el registro de animales peligrosos</i>	<i>25,70</i>

5.2- Eranskina: Hondakinen bilketa eta tratamendua

Zabor bilketa zerbitzuari dagokion tasak %2,8 igo eta Arangoiti egoitzari ematen zaion zerbitzuarengatik tasa berria ezartzea proposatzen da:

TASA	<u>Euroak</u>
1. -ETXEBIZITZETAKO ZABORRAK	
<i>Etxebizitzak</i>	143,61
<i>Garaje kolektiboa</i>	
<i>50 plaza gehienez</i>	520,62
<i>50 plazatik 100era</i>	780,93
<i>100etik gora</i>	1156,65
<i>Garaje bakarrekoea eta lokal itxia</i>	24,43
2. - KOMERTZIOETAKO ZABORRA	
<i>a) Sukalde zerbitzua duten tabernak (pintxo, bokadilo eta plater konbinatuak):</i>	705,28
<i>b) Jatetxeak</i>	814,27
<i>c) Supermerkatuak</i>	589,87
<i>d) Supermerkatu handiak</i>	1.859,37
<i>e) Fruitategiak:</i>	589,87
<i>f) Hondakin organikoa sortzen duten elikadura arloko bestelako dendak:</i>	589,87
<i>g) Harategiak eta arraindegia (baimendutako kudeatzaileetara hondakinak eramaten dituztenak)</i>	378,28
<i>h) Elkartea gastronomikoak</i>	705,28
<i>i) Sukalde zerbitzua ez duten tabernak</i>	589,87
<i>j) Hondakin organikoak sortzen ez dituzten elikadura arloko dendak</i>	378,28
<i>k) Bestelako dendak, biltegiak</i>	378,28
<i>l) Zerbitzuak</i>	346,23
<i>m) Biltegi handiak eta kafetegia, taberna edo jatetxe zerbitzua duten gasolindegia</i>	1.859,37
3. - INDUSTRIETAKO ZABORRAK	
<i>Tailer eta industrien kasuan, tarifek hondakinen sorrera hartuko dute kontuan, eta Sasieta Mankomunitateak erabiltzaile bakoitzaren eskura jarritako errefusaren edukiontzien kopuruaren eta edukieraren arabera kalkulatu dira</i>	

Erabiltzaile bakoitzaren eskura jarritako errefusarentzako 360 litroko edukiontzi bakoitzeko	921,60 €
Erabiltzaile bakoitzaren eskura jarritako errefusarentzako 1.000 litroko edukiontzi bakoitzeko:	1243,88 €/año
Errefusa-edukiontzirik ez duten erabiltzaileak baina Sasieta Mankomunitateak beste bilketa-zerbitzu batzuk ematen dizkienak. Gutxieneko tarifa	921,60 €/año
Enpresa jantokia duten industria handiak, alboko karga-ekipoen bidez artatuak:	16.886,20 €/año
4.- BESTE JARDUERA EKONOMIKO BATZUK	
Garaje kolektiboa	568,70 €/año
Abeltzain esplotazioei (ikuiluak)	170,90 €/año
Arangoiti egoitza	15.403,54 €/año

5.3.- Eranskina: Aldez aurreko jakinarazpenak izapidetzea eta klasifikatutako jardueren lizentziak

Zeuden tasei %2,8ko igoera aplikatzeko proposamena egiten da, ondoren adierazten moduan geratuz:

ALDEZ AURREKO JAKINARAZPEN EDO AITORPEN ARDURATSURA LOTUTAKO JARDUERAK	
	<u>Euro/eraikitako m2ko</u>
- Aldez aurreko jakinarazpena edo aitorpen arduratsuaren egiaztapena	4,85
Tasaren kopurua 2.880,00 eurokoa izango da gehienez.	
LIZENTZIA BEHAR DUTEN JARDUERAK	
	<u>Euro/eraikitako m2ko</u>
Jarduera lizentzia	1,22
- Aldez aurreko jakinarazpena edo aitorpen arduratsuaren egiaztapena	4,85
Nolanahi ere, bi lizentziengatik ordaindu beharreko tasa gehienez 5.750,00 eurokoa izango da	

5.4.- Eranskina: Plaka eta bereizgarriak ematea

Dagoen tasari %2,8ko igoera aplikatzeko proposamena egiten da eta ondoren adierazten den bezala geratzen da.

<u>Euroak</u>	
Ibi iraunkorrerako plakak emateagatik	77,45

5.5.- Eranskina: Hirigintza lizentziak

Dagoen tasari %2,8ko igoera aplikatzeko proposamena egiten da.

TASA	Euroak
<i>Obra lizentziak</i>	
- 14.000,00- €rainoko Obrak	48,20
- 14.000,00 eurotik goragoko obrak	48,20 € + 1€ gehiago, 14.000€tik gorako 1.000€ bakoitzeko
Tasaren kopurua 3.130,00 eurokoa izango da gehienez	
<i>Lehen okupaziorako lizentziak</i>	
Etxebizitza bakoitzeko	48,20 € + 0,5 € eraikitako m2ko
Merkatal lokala m2ko	48,20 € + 0,5 € eraikitako m2ko
Pabiloi, industria modulua eta antzekoak	193,02 € + 0,25 € eraikitako
Garajeko	24,10 € plazako
Hondamen espedienteen tramitazioa	669,75 €

5.6.- Eranskina: Hilerrri zerbitzua.

Dagoen tasari %2,8ko igoera aplikatzeko proposamena egiten da.

TASA	Euroak
Udalaren jabetzako nitxoetan pertsona helduaren lurperatze bakoitzagatik hamar urtetarako epean	541,08
Udalaren jabetzako nitxoetan umeen lurperatze bakoitzagatik hamar urtetarako epean	407,13
Kolunbarioa 10 urtetan erabiltzeko eskubidearengatik	330,13
Kolunbarioa beste 10 urtetan erabiltzeko eskubidearengatik	220,44
Lurrean hobiratze bakoitzagatik	408,39

5.7.- Eranskina: Udal garabia eta beste zerbitzu bereziak

Gaur egungo tasak %2,8an igo eta trafiko istripuen kasuan txostenak igortzeagatiko tasa kentzea (5/2025 Legea) proposatzen da, ondoren adierazten den bezala ezarriz:

Euroak	
Bizikletak	21,09
Motorrak, patinete motordunak eta antzeko ibilgailuak	42,19
Turismoak eta 3.499 kilo bitarteko ibilgailuak	116,02
Kamioak, kamionetak, traktoreak eta 3.500 kg. baino gehiagoko ibilgailuak	316,42
52,74	
Udal deposituan ibilgailuak egiten duen egun edo frakzioko	6,86
Mugatzea, seinaleztatzea, kalea moztea eta trafikoa erregulatzea. Zerbitzuko	52,74
Partikularrak eskatuta, gai zibilei buruzko egiaztapen eta polizia-txostena egitea.	52,74

5.8.- Eranskina: Etxez etxeko laguntza zerbitzurako tasa.

Egungo baremoak aldatzea proposatzen da, ondoren adierazten den bezala utziz:

LAGS sarrerak	Ekarpena
LAGS (SMI)ren ≤%70	%2
>%70,01-72	%5
>%72,01-78	%10
>%78,01-94	%15
>%94,01-110	%25
>%110,01-125	%40
>%125,01-140	%55
>%140,01-156	%75
>%156,01-170	%90
>%170,01-190	%95
LAGSren>%190,01	%100

6.- JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU BEREZIAGATIKO TASAK

Ondoren zerrendatzen diren eranskinak eguneratzea proposatzen da.

ALDATZEA PROPOSATZEN DIREN ERANSKINAK

6.1.- Eranskina: Ibilgailuak finken barrualdera sartzeara eta horien aparkamendu-erreserba bide publikoan.

Zeuden tasei %2,8ko igoera aplikatzeko proposamena egiten da.

Tasak honela geratzen dira:

Ibi iraunkor bakoitzeko. metro lineala / Euroak

1. Maila/1. 53,15

2. Maila/2. 44,69

3. Maila/3. 37,18

Ordutegi mugatuko ibi bakoitzeko: metro lineala

1. Maila/1. 26,56

2. Maila/2. 22,34

3. Maila/3. 18,59

Sarbide partikularrak espaloietan zehar. Garaje kolektiboak (5 ibilgailutik aurrera).

Turismoak urteko

1. Maila/1. 10,65

2. Maila/2. 8,86

3. Maila/3. 7,59

Sarbide partikularrak espaloietan zehar. Banakako garajeak (4 ibilgailu gehienez)

Turismoak urteko

1. Maila/1. 22,77

2. Maila/2. 18,89

3. Maila/3. 18,89

Kamioiak urteko

1. Maila/1. 45,61

2. Maila/2. 38,03

3. Maila/3. 38,03

Enpresetarako sarbideak espaloietan zehar

Turismoak urteko

1. Maila/1. 113,68

2. Maila/2. 94,64

3. Maila/3. 94,64

Kamioak urteko

1. Maila/1. 227,38

2. Maila/2. 189,40

3. Maila/3. 189,40

Espaloirik gabeko sarbide partikularrak

Turismoak urteko

1. Maila/1. 5,99

2. Maila/2. 5,03

3. Maila/3. 5,03

Kamioiak urteko

1. Maila/1. 11,88

2. Maila/2. 9,90

3. Maila/3. 9,90

Espaloirik gabe, enpresetarako sarbideak

Turismoak urteko

1. Maila/1. 30,85

2. Maila/2. 25,68

3. Maila/3. 25,68

Kamioiak urteko

1. Maila/1. 59,30

2. Maila/2. 49,40

3. Maila/3. 49,40

Aparkaleku-erreserba: metro karratuko 17,17

6.2.- Eranskinak: "Azoka, merkatu txiki eta salmenta ibiltaria" eta "Postuak, barrakak, salmenta etxolak, ikuskizunak eta antzekoak"

Tasei %2,8ko igoera aplikatzeko proposamena egiten da, ondoren adierazten den bezala geratuz:

TASA	Euroak
Azokako postuak	
Baserritarrak: urtean m2ko	0,00
Gainerakoak: urtean m2ko	68,03
Salmenta ibiltariak (janari saltzaile, haurren jolasak, etab.)	
Loinaz jaietan salmenta ibiltari postuak. Metro lineal eguneko	9,98
Loinaz jaietatik kanpo salmenta ibiltari postuak	

- Lehengo 2 egunetan: metro lineala	4,94
- 3. egunetik aurrera: metro lineala	0,86
Gutxieneko tasa	
Zirku, ikuskizun eta antzerkiak eguneko Tasa %50ean murriztuko da, instalazioa Loinatz jaietatik kanpo denean	226,77

6.3.- Eranskina: Mahai, mahaitxo, aulki eta itzalkinak

Tasei %2,8ko igoera aplikatzeko proposamena egiten da eta ondoren adierazten den moduan uztea:

TASA	EURO
4 aulki eta mahai baxu bakoitzeko urtean	84,66
2 aulki eta mahai altu bakoitzeko urtean	42,34

6.4.- Eranskina: Ibilgailuen geraleku eta kokagunea

Tasei %2,8ko igoera aplikatzeko proposamena egiten da eta ondoren adierazten den moduan geratzea:

TASA	Euroak
Ibilgailuen geraleku eta kokagunea (Taxi eta anbulantziak)	31,95

6.5.- Eranskina: Kioskoak bide publikoan

Itsu-kupoei eta loteriei (kiosko bakoitzeko eta urteko) dagokien tasa %2,8an igotzea proposatzen da, ondoren adierazten den moduan utziz:

Euroak	
Itsu-kupoiak eta loteriak. (kiosko bakoitzeko eta urteko)	339,10

6.6- Eranskina: Hesiak, edukiontziak, garabiak, andamioak eta bestelako materialak

Tasei %2,8ko igoera aplikatzeko proposamena egiten da eta ondoren adierazten den moduan geratzen dira:

TASA	EURO
1. -Hesiak, era guztietako lanetan eta obretarako aparkalekuaren erreserba (m2-ko edo zatiko, eta eguneko)	
1. mailakoak	0,68
2. mailakoak	0,63
3. mailakoak	0,50

2. -Zaborrak eta materialak gordetzeko kontenedoreak (bakoitza, eguneko)	
1. mailakoak	3,36
2. mailakoak	2,70
3. mailakoak	2,36
3. -Garabiak: Eraikuntzan erabilitako garabi bakoitzeko, beso edo lumaren ibilerak bide publikoaren hegalkina okupatzen badu (hilean edo zatika):	
1. mailakoak	66,96
2. mailakoak	53,59
3. mailakoak	40,12
4. -Aldamio finkoetan jarritako defentsak, bide publikoan ezarritakoak eta horien azpitik libreki ibiltzea ezinezko den euskarriak dituztenak (m² edo zatiko, eta eguneko).	
1. mailakoak	0,68
2. mailakoak	0,63
3. mailakoak	0,50
5. - Aldamio finkoetan jarritako defentsak, bide publikoan ezarritakoak eta horien azpitik ibiltzea posible denean (m² edo zatiko, eta eguneko)	
1. mailakoak	0,27
2. mailakoak	0,19
3. mailakoak	0,15
6.- Defentsa berberak aldamioak hegalkin eran jarrita daudenean, eta horien azpitik ibiltzea posible denean (m² edo zatiko eta eguneko).	
1. mailakoak	0,19
2. mailakoak	0,15
3. mailakoak	0,11
7.- Aurrekoak ez diren beste edozein okupazio (m² edo zatiko, eta eguneko)	
1. mailakoak	0,68
2. mailakoak	0,63
2. mailakoak	0,50
8.- Obrak direla eta kalea ixteagatik (eguneko):	

1. mailakoak	226,39
2. mailakoak	188,47
3. mailakoak	125,65

BIGARRENA.- PREZIO PUBLIKO BERRIAK SARTZEA ETA DAUDENEN ALDAKETA ONARTZEA:

1.- UDAL PRODUKTU, ARTIKULU ETA ARGITALPENEN SALMENTAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK

Udal produktu, artikulu eta argitalpenen salmentagatik honako prezio publiko hauek gehitzea proposatzen da:

Uztailaren 5eko, 11/1989, Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arau Erregulatzailaren 47.2 artikulua dioenez, bidezko gizarte, ongintza, kultur edo herri onurako arrazoiak daudenean, Udalak prezio publikoak ezarri ahal izango ditu, emandako zerbitzuaren edo egindako jardueraren kostua, gutxienez, estaltzeko aukerarik ematen ez dutenak. Hala gertatzen denean, entitatearen aurrekontuetan jaso beharko dira diferentzia estaltzeko behar diren zuzkidurak, halakorik badago behintzat.

Hori gertatzen da akordio honen bidez ezartzen diren prezio publikoen kasuan. Onura publikoko arrazoiak daude jardueren kostuak estaltzeko ordaindu beharko litzatekeena baino prezioa baxuagoa eskatzeko eta aldea udal aurrekontuan kargura estaliko da.

* Erregulazioa eta tarifen zenbatekoak.

1. artikulua.- Oinarria eta izaera.

Udal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 43. artikulutik 50.era bitartean xedatutakoarekin bat etorritz, udal produktu, artikulu eta argitalpenen salmentagatiko prezio publikoak ezartzen ditu.

2. artikulua.- Zergapeko egitatea.

Zergapeko egitatea Udalaren jabetzako produktuak, artikulua eta argitalpenak saltzean datza.

3. artikulua.- Ordaintzera behartuta daudenak.

Produktuak, artikulua eta argitalpenak eskuratzen dituztenek ordaindu beharko dituzte.

4. artikulua.- Zenbatekoa.

Udalak partikularrei zuzenean egiten dizkien salmenta-prezioak (BEZa barne):

- Bandera: 5 €
- Loinatz jaiak zapiak: 3 €
- 5 urte baino lehenagoko Beasaingo Paperak: 0 €
- Beasaingo Paperak azken 5 urtetakoak (aurkezpen eguna): 8 €
- Beasaingo Paperak azken 5 urtetakoak (aurkezpen egunetik kanpo): 10 €
- Beasainen urteurrena: (aurkezpen eguna): 8 €
- Beasainen urteurrena (aurkezpen egunetik kanpo): 10 €
- Gomazko erraldoiak: 20 € unitateko

Udalak banatzaileei eta saltokiei merkaturatzeko zuzenean egiten dizkien salmenta-prezioak (BEZa barne):

- Bandera: 2,5 €
- Loinatz jaiak zapiak: 1,5 €
- Beasaingo Paperak: 8 €
- Beasaingo urteurrena: 8 €
- Gomazko erraldoiak: 18,5 € unitateko

5. artikulua.- Ordainketa betebeharra eta modua.

Prezio publiko hori ordaintzeko betebeharra produktuak erosten diren unetik sortzen da partikularren kasuan, eta banatzaileen eta salmenta-puntuaren kasuan, ekitaldi amaieran gordailuan jasotakoan aldean benetan saldutako unitate-kopurua egiaztatzen dutenean.

6. artikulua.- Arau-haustea eta zehapenak.

Hemen araututako prezio publikoen ondoriozko zorrak premiamendu-prozedura administratiboaren bidez eta zerga-bilketari buruzko araudiaren arabera eskatu ahal izango dira.

AZKEN XEDAPENA

Udal erabaki hau G.A.O.ean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

2.- USURBE ANTZOKIAN ESKAINITAKO ZINE PROIEKZIOENGATIK ETA UDALAK ANTOLATUTAKO EKITALDE EDO IKUSKIZUNETARAKO SARRERENGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK

Ondorengo kontzeptuak gehitzea proposatzen da:

PREZIO PUBLIKOA	EURO
Helduak, ikuslearen eguna (astelehena):	4,3
65 urtetik aurrera, ikuslearen egunean (astelehena)	3,3
Gazte kultur bonua onartzen da	

3.- ANTZIZAR KIROLDEGIAREN INSTALAZIOAK ERABILTZEAGATIK, BERTAN EMATEN DIREN ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ETA GELAK ALOKATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIOAK

Prezio publikoei %2,8ko igoera aplikatzea proposatzen da, eta ondoren adierazten den moduan geratzen dira:

1. Antzizar kiroldegiko instalazioak kirol esparruan erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezioak

Matrikulak / Euroak

00-03 urte : 0,00

04-15 urte : 20,46

16-24 urte gazte txartela : 91,49

25-64 urte: 91,49

65+ urte: 91,49

Familia: 91,49

Federatuak: 91,49

Lehen hilekoa barne eta baja ondoren urtebeteko indarraldia

Familia: Bizikidetasun unitatean adin txikiko seme-alabak barne.

Federatuak: Udalarekin adostuta duten elkarteek.

Eperik gabeko abonauak: Hilekoa / Euroak

00-03 urte: 0,00

04-15 urte: 15,32

16-24 urte gazte txartela: 19,84

25-64 urte: 30,58

65+ urte: 19,84

Familia: 45,80

Federatuak: 19,84

Udako abonauak (ekaina-iraila). Matrikularik gabe / Euroak

00-03 urte: 0,00

04-15 urte: 77,82

16-24 urte gazte txartela: 101,16

25-64 urte: 155,79

65+ urte: 101,16

Familia: 233,51

Hileko abonauak: Matrikula gabe / Euroak

00-03 urte: 0,00

04-15 urte: 45,13

16-24 urte gazte txartela : 59,47

25-64 urte: 91,54

65+ urte: 59,47

Familia: 137,24

Eguneko sarrerak / Euroak

00-03 urte: 0,00

04-17 urte: 5,14

18+ urte: 10,28

Eguneko sarrerak taldeentzat (10 lagun gutxienez) / Euroak

00-03 urte: 0,00

04-17 urte: 4,11

18+ urte: 8,22

Eguneko 10 sarreren bonuak / Euroak

00-03 urte: 0,00

04-17 urte: 41,12

18+ urte: 82,24

Rokodromora sarrerak / Euroak

04-17 urte: 3,08

04-17 urte (20 sarrera): 41,12

18+ urte: 6,17

18+ urte (20 sarrera): 82,2

Instalazioen alogera kirolerako pertsona/orduko ez abonatuak / Euroak

04-17 urte: 4,11

18+ urte: 8,22

Taldea-eremua-ordua: 30,84

Kirolerako alogera 10 erabilpen bonua / Euroak

04-17 urte: 32,90

18+ urte: 65,79

Ikastaroak: Hilekoa/ ABONATUAK: BAI (€) - EZ (€)

Zunba: 22,98 - 63,27

Aerobic-Step: 16,65 - 42,92

Ciclo-indoor (2 egun): 17,84 - 47,34

Ciclo-indoor (3 egun): 22,36 - 61,06

Pilates: 42,20 - 84,81

Hipopresiboak: 30,89 - 62,14

GAP: 22,36 - 61,06

Haurdunen igeriketa: 30,69 - 64,46

Terapeutika: 44,10 - 88,15

Aquafitness: 22,15 - 45,23

Fitness jarraipena: 14,14

Igeriketa helduak: 33,87 - 67,80

TRX: 33,77 - 65,38

Global training: 33,77 - 65,38

Kickboxing: 32,48 - 60,65

Boxing: 32,48 - 60,65

Adinekoen Kirola: 4,52 - 9,05

Kirol egokitua: 7,92 - 15,83

Gazte training: 24,36 - 45,49

Kidsboxing: 24,36 - 45,49

Gazte aerobic: 17,27 - 47,34

Judo haurrak hastapena: 22,56 - 45,23

Judo haurrak hobekuntza: 30,07 - 59,93

Igeriketa haurrak: 22,36 - 58,75

Haurtxoen igeriketa: 42,20 - 84,81

Tenis-Padel: 30,38 - 35,77

Eskalada: 29,66 - 59,16

Patinajea: 32,48 - 60,65

Ikastaro + (2 egun): 24,36-

Ikastaro + (3 egun): 33,77

Ikastaro berria: 30,84 - 61,68

Teknikaria orduko: 33,77

Udalekuak txanda 1: 84,40 - 137,24

Udalekuak txanda 2: 137,14 - 189,87

Zaintza 1 x 1 ordu : 25,29 - 50,63

Zaintza 2 x 1 ordu: 42,20 - 84,40

Materialaren alokairua / Euroak

Takila bikoitza hileko: 3,91

Takila bakuna hileko: 2,88

Bestelakoak / Euroak

Karneta fidantza: 3,19

Karneta berritzea: 5,29

Itzulketa gastuak: 2,62

II. Antzizar kiroldegiko instalazioak erabiltzeagatik kirol esparrutik kanpo ordaindu beharreko prezioak

Bi motatakoak:

- Aparteko gizarte eta kultur ekintzetarako kirol instalazioak erabiltzea.

- Antzizar Kiroldegiko instalazioen gelak alokatzea, Jabetza Erkidegoei, Autoeskolei, etab.

Udalak dagokion faktura emango du kiroletakoak ez diren jarduerekin instalazioak erabiltzeagatik, aldez aurretik udal kontratuaren arduradunak Kontuhartzaitzako azpiarloari emandako informazioaren arabera eta erabiltzaileari helaraziko zaio ordaindu dezan.

Gelaren alogera kirolerako ez denean (BEZ gabe) / Euroak

Eremua alogera orduko: 30,84

Gelaren alogera hileko: 316,42

BIGARREN.-

Ordenantza fiskalen hasierako onespenerari buruzko erabakiaren iragarkia G.A.O.ean, udal iragarkien taulan eta Lurralde Historikoko zabalkuntza handieneko egunkari batean argitaratuko da, jendaurrean egongo delarik 30 laneguneko epean, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Epe hori igarota erreklamaziorik aurkezten ez bada, Ordenantza fiskalei buruzko erabakiak behin betiko onartutzat joko dira, eta testu osoa G.A.O.ean argitaratuko da eta 2026ko urtarrilaren 1ean sartuko dira indarrean.

Epe horretan erreklamazioak aurkeztuko balira Udalbatzak ebatzi beharko lituzke.

HIRUGARREN.-

Prezio publikoen onespeneraren eta aldaketen erabakia G.A.O.ean argitaratzea.

Antzizar kiroldegiko prezio publikoak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dute eragina eta gainerako prezio publikoak G.A.O.ean argitaratu eta ondorengo egunean sartuko dira indarrean.

LAUGARREN.-

Etkez etxeko laguntza zerbitzuaren tasari dagokionez, etkez etxeko laguntza zerbitzuaren araudi berriaren testu osoa onartu eta G.A.O.ean argitaratu ondoren sartuko da indarrean.”

Jarraian Alkate andreak esan du Toledoko abokatu bat ari dela herri ezberdinekin onartutako ordenantza fiskalekiko alegazioak aurkezten. Horrela gertatuko balitz, abenduan berriro ere Osoko Bilkurara ekarri beharko dira.

Kontuhartzaileak, Alkateak esandakoa baieztatu du eta adierazi du inpugnatuko balitz aztertu egin beharko dela interesduna den ala ez alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Alkate andreak (EAJ-PNV): Proposamenarekin amaitzeko esan ez direla aldatuko:

- Ibilgailu elektrikoen erreforma-puntuko prezioak.
- Oposaketetara aurkezteko prezioak.
- Auto-taxien lizentziak.
- Igartzako prezioak.
- Udaleku, TAO, Musika Eskola eta Euskaltegiak, udaberrian 2025-2026 ikasturterako onartu genituelako.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek, proposamenarekiko ondorengo iritzia azaldu dituzte:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): Nosotros estamos a favor de la propuesta porque lo que también nosotros planteamos se ha mantenido.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): “Guk ezin dugu berdina esan. Egia da azken urteotan guk egindako hainbat ekarpen txertatzen joan direla, adibidez, CO2 isuriaren

araberako hobaria, zabor-tasa sortzeko hobaria, Musika Eskolako hobari progresiboak. Aurten egindako ekarpenetatik ere familia ugariaren hobaria ere onartu da eta pozten gara, baina, talka egiten duen gaia ere badago eta da etxebizitza gaia. Hau da urtero egiten dugun eskaera, hau da, hutsik dauden etxebizitzetako erretegia ezartzeari buruzkoa. Legeak aurreikusten duen %150ekoa eskatu dugu baina hori ikuskizun egongo litzateke. Beasainen etxebizitza-azterketa egin da eta identifikatuta daude zein etxebizitzetako erretegia jartzea egongo litzatekeen. Azterketa horren ondorioz neurri zuzentzaileak jarri daitezke, baina gai honen inguruan ez da pausorik eman nahi. Aipatzen da Etxebizitza-legeak kanona ezartzea behartuko digula baina, hemen ere ez dugu ikusi inolako borondaterik. Gai honekin historiko bat dugu eta hau erabakitzen ez den bitartean ordenantza fiskalak ez ditugu onartzen.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Etxebizitza eskuratzeko arazoa egungo gizartearen lehentasunen artean dago. Hori denok dakigu eta denok norabide berdinean arraun egin beharko genuke. Aipatu da Beasaingo etxebizitzaren diagnostikoa egin eta plan bat aurrera eramanean eta bertan ikusi da hainbat aldiz publikoki entzun dugun 932 etxebizitza huts horietatik 252 etxebizitza huts errealek bilakatu direla. Erroldatuta dauden etxebizitzaren herena da, hain zuzen ere. Beasaingo etxebizitza parkearen %15a. Adituek hala esanda stock tekniko baten barruan sartzen da etxebizitza parkearen %3a delako (3tik 5era da stock teknikoa). Guk beti esan dugu hutsik dauden etxebizitzak alokairura ateratzearen aldeko sustapen kanpainak aurrera eramaten ditugula. Horren ondorio da, etxelagun-programan edo Bizigunen programan jada 73 etxebizitza alokatuta egotea. 73 etxebizitza jabeek hobariak jasotzen dituzte bizigune-programaren bidez etxebizitza merkatura ateratzeko. Hortaz gain ere, udal honen sustapen programa bat darama: gazteentzat etxebizitza alokatzeko dirulaguntzak ematen ditu, emantzipa programa ere Eusko Jaurlaritzakoa kontuan hartu behar da. Bakoitzak bere eremutik hutsik dauden etxebizitza horietako merkaturatzeko eta alokatzeko ahaleginak egin behar ditugu kanpainak eginez. Horrezaz gain, guk pizgarriak ematen ditugu hobariak aplikatuz ondasun higiezinaren gainera. Kontuan hartu behar dugu fiskalitatea ere erremienta egokia izan daitekeela etxebizitza egokia eskuratzeko. Aurten zerga foru-araua onartu da eta hori neurri zehatzak jarri dira (1991 etxebizitza eskuratzeko pizgarriak onartuta daude errentaren gainera zergan), baina horretaz gain kenkari bereziak jarri dira gazteentzat edo familia ugariarentzat, izan maizterrak edo jabeak. Horrekin esan nahi dudana da Eusko Jaurlaritzak ere badituela hainbat programa etxebizitzak merkaturatzeko eta horretan jarraitu behar dugula.

Pozten naiz esaten duzunean pixkana-pixkanaka proposamenak kontuan hartzen ditugula (aztertu eta zentzuzkoak direnekin ez daukagu inolako arazorik aintzakotzat hartzeko), baina esango nuke emaitzetan ez dela asko antzematen. Azken hiru urtetan (behin abstentzioa jaso genuen), baina bi urtetan ordenantza fiskalekiko aurka bozkatu duzue.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): “Bai aurten ere bai. Pozten gara ekarpenak jaso izana eta hori publikoki aitortu dugu, baina etxebizitzak garrantzi handia du eta nahiz eta laguntzak eman, arazoa da merkaturatzea ez dagoela etxebizitzarik. Etxebizitzaren merkaturatzea zabaltzeko zilegi da bakoitzak bere estrategiak erabiltzea eta guk uste dugu denak aprobetxatu behar direla.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Guk alokairura ateratzea sustatzeko pizgarri batzuen aipamena egin dugu eta zuek erretegia aipatzen duzue. Erretergia jarrita dutenen hainbat herritan kontsulta egin ondoren, jaso dugun emaitza izan da erretergia horiek ez duela mobilizatu etxebizitza-hutsen politika. Hori ere bada kontuan hartzekoa.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da.

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Abstentzioak: 1 (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Horren ondorioz, proposamena gehiengo osoarekin onartu da.

b.- TAXIAK. TARIFAK EGUNERATZEA. TAXI ZERBITZUA EMATEAGATIK. 2026.URTERAKO TARIFAK. 2025EKBO0126

Ezagutzera eman da, Antolakuntza batzordeko proposamena, hau da:

“(AGITAX) Gipuzkoako Taxisten Elkarteak, Goierriko erregimen bereziko eremuan aplikatzeko 2026 urterako tarifen onespena eskatu du.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta gero, Antolakuntza Batzordeak Udalbatzari ondorengo akordio proposamena egiten dio:

Lehenik.- *Gipuzkoako Taxisten Elkarteak proposatutako kostuen estudioaren onspena.*

Bigarren.- *Goierriko eskualdeko eremuan aplikagarri izango diren Agitaxek proposatutako 2026rako ondorengo tarifen onspena, indarrean daudenekiko % 2,8ko igoerarekin.*

2026ko HIRI BARRUKO TARIFA			
	Abiasaria	Ibilitako kilometroa	Itxarote ordua
Tarifa 1*	4,4724 €	1,4001 €	26,7429 €
Tarifa 2**	4,4724 €	2,2330 €	42,0310 €

* Lanegunetan 07:00tik 22:00arte

** Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00tik 07:00 arte. Bai igande eta araudi autonomiko eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 07:00tik 22:00 arte bai larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan

Hirugarren.- *Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari. Merkataritza Zuzendaritzari ematea.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

c.- ORDAINSARIAK IGOTZEA. 2024PEBO0154

Ezagutzera eman da Antolakuntza batzordeko proposamena:

“Gaia: 2024ko ordainsarien igoera 2025ean egiten dena. Akordio proposamena.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2025eko uztailaren 2an, Ministro Kontseiluaren 2025eko uztailaren 1eko Erabakia argitaratu zen. Erabaki horren bidez, ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuaren 6.2 artikuluan aurreikusitako sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien ehuneko 0,5eko igoera onartzen da (4/2024 Errege Lege Dekretua, ekainaren 26koa, Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazketatik eratorritako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko zenbait neurri luzatzen dituen eta arlo fiskal, energetiko eta sozialean presako neurriak hartzen dituen).

Sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsari-igoerei dagokienez, aipatutako Errege Lege Dekretuak, 6. artikulua, hau arautzen du:

“Sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsari-neurriak

6. artikulua. Sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsari-igoera 2024. urterako.

1. 2024. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsari-ehuneko 2ko gehieneko igoera globala izan ahal izango dute, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden aldean, azken horietan barne hartuta 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.Bi.2 artikuluan aurreikusitakoaren ondoriozko igoerak, konparazioaren bi aldietarako homogeneousotasunari dagokionez, bai langileen kopuruari dagokionez, bai antzintasunari dagokionez. Ordainsari-igoera horrek 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.

2. Halaber, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera gehigarria eta finkagarria aplikatuko da, hala badagokio, 2023ko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean, baldin eta 2022., 2023. eta 2024. urteetako KPI harmonizatuaren aldaketaren baturak 2022., 2023. eta 2024. urteetako ordainsari-igoera finko metatua gainditzen badu. Horretarako, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) 2024ko KPI harmonizatuaren datuak argitaratu ondoren, igoera horren aplikazioa onartuko da Ministroen Kontseiluaren Erabakiaren bidez, eta BOEn argitaratuko da (...).”

Bigarrena.- Aurrekoa ikusita, eta EUDELek aurreko ekitaldietako udaletako langileen ordainsari-igoerei dagokienez egin izan duen bezala, ordainsarien arloan egon daitezkeen interpretazioak argitze aldera, egokitzen jotzen da euskal udalei honako hau egitea:

GOMENDIOA

Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazketatik eratorritako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko neurri jakin batzuk luzatzen dituen eta zerga-, energia- eta gizarte-arloan presako neurriak hartzen dituen Ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretua 6. 2 b) artikuluan aurreikusitako sektore publikoko langileen ordainsarien % 0,5eko igoera osagarria onartzea. Igoera hori 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei aplikatuko zaie, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Hirugarrena.- Era berean, Jaurkitzearen Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariaren uztailaren 22ko 69/2025 EBAZPENEAN xedatzen da argitaratzea Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien % 0,5eko igoera gehigarria onartzen duen erabakia 2024. urterako.

ERABAKI DU

Lehenengoa. – 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, % 0,5eko ordainsari-igoera onartzea, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden urteko guztizko ordainsarien aldean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren, organismo autonomoen, zuzenbide pribatuko erakunde publikoen eta sektore publikoko partzuergoen zerbitzura dauden eta lan-kontratukoak ez diren langileentzat, bai eta lehendakariarentzat, sailburuentzat, goi-kargudunentzat eta parekoentzat, behin-behineko langileentzat eta zuzendaritzako langileentzat ere.

Laugarrena.- 2025eko irailaren 19ko bileran, ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuan jasotako soldata-igoeren eta EUDelen gomendioaren berri eman zuen enpresa-batzordeak.

Aurrekariak ikusita, honako hau erabaki du,

Antolakuntza Batzordeak 2025ko urriaren 23an egindako bileran Udalbatzari ondorengo akordio

proposamena egitea.

AKORDIO PROPOSAMENA

Lehena.- Udal Langile publikoen ordainsariak % 0,5an handitzea 2024ko urtarrilaren 1eko efektuarekin.

Bigarrena.- Ordainsarien igoera, 2025eko urriaren nominan gauzatuko da. 2024ko urtarrilaren 1eko atzera eragina duten atzerapenak azaroan gauzatuko dira.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

d.- IGOERA: GOBERNU-ORGANOEN ETA ZINEGOTZIEN ORDAINSARIAK, ARDURALDI OSOA ETA PARTZIALA ETA TALDE POLITIKOEN ESLEIPENAK ETA KALTEORDAINAK KIDE ANITZEKO ORGANOETARA BERTARATZEAGATIK. 2024PEBO0154

Ezagutzera eman da, Antolakuntza batzordeko proposamena:

“AURREKARIAK

I.- Gobernu organo eta zinegotzien ordainsariei dagokionez, udalbatzak, 2023ko uztailaren 6an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen zehaztea alkatearen dedikazio eskusiboko araubidea, lehen alkateordearen dedikazio araubidea, % 100ekoa eta bigarren alkateordearen dedikazio araubidea % 100ekoa.

Udalbatzak, 2024ko uztailaren 22an egindako ohiko bilkuran, Beasaingo EH BILDU udal-taldeko oposizioko zinegotziari % 50eko arduraldi partziala ezartzea erabaki zuen.

Ordainsariak ezartzeko, 7/2018 Foru Arauaren 5. xedapen gehigarrian xedatutakoa hartu zen erreferentziatzat, eta, zehazki, Eusko Jaurlaritzako zuzendariarena, 10.001 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerriei baitagokie, eta kargu horren modu berean eguneratuko da.

Aldi berean. Udalbatza Osoak, 2023ko uztailaren 6ko egindako aparteko bileran, Talde politikoen asignazio eta organo kolegiatutako bileretara joateagatik kalteordainei dagokion akordioak hartu zituen. Akordioaren 6. Puntuan Diru kopuru hauek 2024tik aurrera eguneratu egingo dira kontuan izanda urte bakoitzeko Estatuko Aurrekontuaren Legea edota dagokion legeriak ezartzen duena funtzionarioekiko.

II.- Ordainsariak ezartzeko erreferentziatzat 7/2018 Foru Arauaren 5. xedapen gehigarrian xedatutakoa hartu denez, eta, zehazki, Eusko Jaurlaritzako zuzendariarena, 10.001 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerriei dagokielako, eguneraketak kargu horren modu berean egingo dira.

III.- 2025eko uztailaren 30ean, EHAA n argitaratu zen Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariaren uztailaren 22ko 69/2025 EBAZPENEAN xedatzen da argitaratzea Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien % 0,5eko igoera gehigarria onartzen duen erabakia 2024. urterako. Zehazki,

”Seigarrena.- Lehendakariaren, sailburuen, goi-kargudunen eta berdinetatikoen ordainsariak honako hauek izango dira 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera:

	Soldata hilabetea (eurotan)	Ordainsaria, guztira (eurotan)
Lehendakaria	8.374,51	117.243,21
Lehendakariordea	7.863,79	110.093,06
Sailburua	7.465,21	104.512,94
Sailburuordea	6.756,19	94.586,66

Zuzendaria	5.761,18	80.656,52
Cojua – Aholku Batzorde Juridikoko kidea	5.760,84	80.651,76
Lehendakari pentsioduna	4.187,27	58.621,78
Sailburu pentsioduna	3.732,63	52.256,82

Aurrekariak ikusita,

Antolakuntza Batzordeak, 2025eko urriaren 23an egindako saioan, Udalbatzari ondorengo akordio proposamena egitea erabaki du,

AKORDIO PROPOSAMENA

Lehen.- Beasaingo Udaleko arduraldi eskusiboko eta partzialeko karguen ordainsarietarako erreferentziatzat hartuko da aurrekariaren II. Atalean aipatutako Eusko Jaurlaritzako zuzendariaren ordainsaria, 2023ko uztailaren 6ko eta 2024ko uztailaren 22ko osoko bilkuren erabakiekin bat etorriz, eta kasu bakoitzeko ezarritako proportzioan, hau da:

Dedikazio eskusiboak:

- Alkatea: % 100.

% 100eko dedikazioa:

- Lehenengo Alkateordea: Alkatearen % 85.
- Bigarren Alkateordea: Alkatearen % 75.

Arduraldi partzialak % 50:

- Beasaingo EH BILDU udal-taldeko oposizioko zinegotzia: alkatearen % 65.

Igoera 2024ko urtarrilaren 1eko efektuekin izango da.

Bigarrena.- 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, talde politikoentzako asignazioak eta kide anitzeko organoen bileretara joateagatiko kalte-ordainek % 0,5ko gehikuntza izango dute 2023ko uztailaren 6ko osoko bilkuraren erabakiarekin bat etorriz.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengo iritzia azaldu dituzte:

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Como últimamente hemos venido manteniendo estamos en contra del incremento de las retribuciones para los órganos de gobierno (dedicación exclusiva, completa y parcial), porque creemos que los sueldos políticos son altos y desproporcionados. El estar a favor de seguir aumentándolos no es nuestra política.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Guk ere betiko irizpidea mantenduko dugu puntu honetan.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Luze eta zabal hitz egindako gaia izanik, hemen utziko dugu.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 8 (Beasaingo EH Bildu, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Horren ondorioz, proposamena gehiengo osoarekin onartu da.

3.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- BEASAINGO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKO HITZARMENA ETXEZ ETXEO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO HITZARMENAREN LUZAPENA. 2022BIBO0002

Ezagutera eman da Herritarrak batzordeko proposamena:

“AURREKARIAK

I.- Etxeko Laguntza Zerbitzuaren finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Beasaingo Udalaren arteko 2014ko ekainaren 23ko 2014-2015 hitzarmena, zein indarrik gabe geratu den 2018k martxoaren 20an.

II.- 2017-07-07. EUDELeko Gipuzkoako Lurralde Batzordearen erabakia, Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalaren arteko finantza-fluxuen banaketa berri bat egiteko hartutako erabakia, 2017-2019 aldirako etxeko laguntzaren zerbitzuaren kofinantziazioari buruzkoa.

III.- 2018-05-21. Etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Beasaingo Udalaren arteko hitzarmena sinatzea. Hitzarmenaren indarraldia 2017-10-01etik 2019-09-30arte, epea amaitzerakoan besterik gabe luzatu ahal izango da urtez urte, betiere aurrekontu xedapen egokia eta nahikoa baldin badago luzatutako ekitaldirako.

IV.- 2021-07-21. Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaiak gaur egun indarrean dauden hitzarmenatarako balio izan zuen ereduari funtsezko aldaketarik gabe eusteari buruzko erabakia. 2021eko irailaren 30ean amaitu du hitzarmenaren indarraldia.

V.- 2021-12-07. Foru Gobernu Kontseiluaren Erabakia, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udala eta mankomunitateekin sinatu beharreko 2021-2023 aldirako hitzarmen eredu berria onartzen duena, Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru finantzaketarako.

VI.- 2022-03-03. Beasaingo Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren, zehazki Zainketako eta Gizarte Politikotako Departamentuaren artean sinatutako hitzarmena: Egikaritze epea: 2021-10-01etik 2023-12-31ra.

VII.- 2023-12-12. Erabakia, Gipuzkoako Foru Aldundiko Foru Gobernu Kontseiluarena, hitzarmena urte natural batez luzatzea onartzen duena, 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

VIII.- 2024-01-25. Udalbatzaren erabakia, Beasaingo Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmenaren luzapena onartzen duena, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko, 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte.

IX.- 2024-12-10. Diputatuaren Kontseiluak hartutako Erabakia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Udal bakoitzaren artean etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko lankidetza hitzarmenaren ondorio ekonomikoak zabaltzea onartzen duena, 9 hilabeteko epean, 2025eko urtarrilaren 1etik irailaren 30 arte.

X.- 2025-01-30. Udalbatzaren erabakia, Beasaingo Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmenaren luzapena onartzen duena, etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko, 2025eko urtarrilaren 1etik irailaren 30 arte.”

XI.- 2025-09-10. Diputatuaren Kontseiluak haratutako erabakia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Udal bakoitzaren artean etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko lankidetza hitzarmena urte batez luzatzea onartzen duena, 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era.

Erabaki horren berri ematen da, egokitze jotzen bada, luzatzeko udal-erabakia har dadin.

XII.- Idazkaritzako txostena eman da prozedurari buruz eta adieraziz luzatzea proposatzen den hitzarmenak izaera administratiboa duela.

LEGERI APLIKAGARRIA

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. 17,10 artikulua.
- 12/2008 Legea, abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. 22, 1.2) eta 54 artikulua.
- 49/2015 Legea, urriaren 1koa. Sektore Publikoaren Araubidearena. 50. artikulua.

Horren ondorioz, Herritarrak batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Beasaingo Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmenaren luzapena onartzea, etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko, 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30 arte."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

b.- KONTRATAZIOA: ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA KONTRATATZEKO LIZITAZIO ESPEDIENTEA ONARTZEA. 2025BIBO0010

Herritarrak Batzordeko proposamenaren berri eman da: Aipatutako zerbitzua kontratatzeke baldintza plegu administratiboa eta tekniko onartzea eta lizitazioa, deialdia publikoaren bidez egitea Europa Elkarteko Aldizkari Ofizialean eta Euskadiko kontrataziorako plataforman iragarkiak argitaratuz. Lizitazioaren ezaugarri garrantzitsuenak hauek dira:

- 1.- Prozedura: irekia publizitatearekin. Lizitazio elektronikoa.*
- 2.- Izapidetzea: arrunta, irekia eta harmonizatua.*
- 3.- Lizitazio prezioa: 1.386.795,61 € + 55.471,82 € (BEZ)= 1.442.267,43 €*
- 4.- Egikaritze epea: 3 urte kontratua formalizatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita. Ez dago luzatzeko aukerarik.*
- 5.- Kaudimen ekonomikoa: Urteko negozioen bolumena, azken hiru urteetako hoberena. Gutxienez, 2.080.193,42 €koa*
- 6.- Kaudimen tekniko: Azken hiru urteetan emandako zerbitzuen-zerrenda, baliabide pertsonalak (zerbitzuaren koordinatzailea eta etxeko laguntzaileak (bi kasuetarako karatulan zehazten da dedikazioa eta titulazioa.*
- 7.- Aurkezteko epea eta lekua: Guztiz lizitazio elektronikoa denez, 30 egun lizitazio-iragarkia Europa Elkarteko Aldizkari Ofizialera bidaltzen denetik.*
- 8.- Adjudikazio irizpideak:*

Formula automatikoen bidez baloratzen ez diren irizpideak (40 puntu)

Memoria teknikoa (lan-metodologia eta zerbitzuaren antolaketa, giza-baliabideak, intzidentzien kontrola eta kudeaketa, barneko eta kanpoko koordinazio-sistema, zerbitzuaren jarraipen eta ebaluazioa): 50 puntu.

Formula automatikoen bidez puntuatzeko irizpideak. (50 puntu)

Eskaintza ekonomikoa. 50 puntu.

- 9.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.*
- 10.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.*
- 11.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak:*
 - Lan-merkatuan emakumeek gehiago parte hartzea eta lan- eta familia-bizitza bateragarriak izan daitezen erraztea.*
 - Langabeziari aurre egitea, batez ere gazte, emakume eta luzaroko langabeenari.*
 - Lantokian prestakuntza jasotzen laguntzea."*

Horrezaz gain Alkate andreak ondorengoak aipatu ditu:

Lizitazio-datuak:

- Soldata kostuak: 1.227.252,76 €. Lizitazio kostuaren %85a gutxi gorabehera.*
- Zerbitzua koordinatzeko eskatzen den dedikazioa: 2.938 ordu (aurreko lizitazioarekiko igo egin da).*
- Etxeko laguntzaileen dedikazioa guztira: 37.867 ordu. Horietatik, 3.540 ordu izango dira etxebizitza batetik bestera joateko denbora.*

Aurreko lizitazioarekiko hobekuntzak:

- Zerbitzu gehigarriak: Paseoak egiteko laguntza eta etxean konpainia egitea.
- Sarrera bakoitzean zerbitzuak, gutxienez, 30 minutuko iraupena izango du (lehen ordubetekoa zen).
- Zerbitzu batetik bestera joatea, lan ordu bezala kontsideratuko da.

Lehen ere aurreikusita zegoen xehetasuna:

Erabiltzaileei eragotziko legozkieken arrazoiengatik eman ez diren zerbitzu-orduak enpresari ordaintzen zaio eta bide batez langileari eta erabiltzailea etxetik kanpo egoteagatik lehen zazpi egunetan ematen ez den zerbitzu hori familiari kobratuko zaio.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Algo que nos preocupa en este tema es la falta de un convenio, pero según las noticias que nos han llegado parece que lo han firmado. Además de las horas de servicio recogidas, vemos como algo positivo, que los tiempos de desplazamiento entre domicilios se contemplen como horas de trabajo, así como el incremento de salarios estimado en los costos de licitación, ya que ello posibilita que a los trabajadores no se les pongan excusas para la subida de los sueldos, como mínimo el IPC. Añadir que, así como se debe hacer un seguimiento del contrato, también habría que revisar el cumplimiento de los derechos de los trabajadores y en definitiva del convenio que pudiera existir. Estamos a favor.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Guk batzordean gure kezkak azaldu genituen. Aurreko pleguen lanketa egin genuenean nabaritutako hutsuneak oraingoan ere bere horretan jarraitzen dute. Alde batetik formazioaren gaia aipatzen genuen. Batzordean esan zitzaigun formazio-orduak lan-ordutan sartzen zirela. Zalantza genuen eta konfirmatu zaigu ez dela horrela. Hasiera batean formazio-ordu horiek lan-orduz kanpo planteatzen zitzaizkien langileei eta gerora enpresak proposatu zien bi ordutatik bat, lan-ordua izatea eta bestea, norberaren gain lan-orduetatik kanpo. Gure iruditzen zaigu formazio-ordu horiek zerbitzuaren kalitatea areagotzen dutela eta zentzu horretan hutsune bat badagoela esango genuke. Formazioarekin lotuta euskararen gaia aipatzen genuen, erabiltzaileek nahi duten hizkuntzan zerbitzua jasotzeko eskubidea dutelako, baina formazio-ordu horietan ez bada ahalbideratzen euskara ikastea, nahiko zaila iruditzen zaigu eskubide horiek bermatzea. Batzordean esan zen, legalki eskakizun hori ezin dela bideratu, baina kontsulta egin ondoren idazkaritzatik aipatu zaigu Kontratu-legearen arabera esleipen-irizpideak kontratuaren helburuarekin zerikusia izan behar dutela eta kontuan izanda baldintza administratiboak esaten duena, hau da, erabiltzaileek eskatutako hizkuntzan zerbitzua emango zaiela eta baldintza plegu teknikoaren arabera zerbitzua, Autonomia Erkidegoko edozein bi hizkuntzetan emateko gaitasuna izateko beharra, ondorioztatzen da zerbitzuaren kalitatea hobetzen lagunduko lukeela euskara-ikastaroak ematea. Gure galdera izan da hori nola txertatu daitekeen. Badirudi esleipen-irizpideetan “hobekuntza” modura txertatzeko aukera dagoela, hainbat aspektu definitu ondoren, hala nola:

- Formazioa lan-orduetan edo lanorduetatik kanpo emango litzatekeen.
- Prestakuntza aldi baterako (kontratuaren epealdi bukaeran dena ez ematearren), programazio zehatz batekin edo urtean gutxienez ordu batzuekin egiten den.
- Zeini eta zenbat langileri zuzendua dagoen formazioa.
- Nola ebaluatu ikastaroen errendimendu-maila (eman eta jasotzen dutenentzat).

Gauza da aukera erreala egongo litzatekeela pleguetan hori txertatzeko. Hori da guk batzordean eskatzen genuena. Hutsune hori hor geratzen da. Benetan nahi badugu erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak bermatu, aukera badago. Hori bai, aldi berean esaten da

baldintza teknikoan betebeharr bezala aurreikusten dena ezin dela baloratu. Beraz, onartuko balitz pleguen erredakzioa aldatu egin beharko litzateke.

Ziurrenik berandu gabilta baina aukera erreala egonda, aprobetxatu egin beharko genuke.” Alkate andreak (EAJ-PNV): “Lehenik eta behin denok poztu gara langileekin akordio batetara iritsi delako orain arteko enpresa kudeatzailea. Egia da hasierako eskakizunetatik bat geratu dela pixka bat zintzilik. Guk gure azterketa ekonomikoak egin ditugunean datozen urteetarako soldata-igoerak eta zerbitzuan hobekuntzak aurreikusi ditugu eta alde horretatik beraien eskaerak eta gure pleguen azterketa, gutxi asko bat joan da. Eskaera bat zegoen eta guk ez genuen zertan erantzuna eman behar, enpresa eta langileen arteko lan-harremanari dagokiolako. Dena dela poztu gara enpresak langileen eskakizunak entzun dituelako.

Hori esanda, nik uste dut denok hemen borrokatu beharko genukeela horrelako oinarritzko sektore batek lan-hitzarmen kolektiboa izateko. Askotan, lan-hitzarmen kolektiboa ez izatearen ondorioz izaten ditugun hainbat eztabaida ez izateko. Zentzu horretan, gure esku dagoen jarraipena egingo dugu, orain arte egiten dugun bezala, baina lan-hitzarmen kolektiboa egongo balitz hainbat zalantza beste modu batera kudeatu ahal izango lirateke. Beraz, bakoitzari dagokigu dagokion tokian, horren alde eskaera egitea.

Beasaingo EH Bilduri erantzunez, esango nuke bi kontu direla. Bat, langileei eskatu dakiekeen hizkuntza eskakizuna eta hor, aurreko lizitazioan ere gure zalantzak azaldu genituen (denok dakigu euskarak judizialki zein zigor jasotzen ari den) eta bestea, formakuntza da. Formakuntzaren inguruan gaur aipatu diren zehaztapen horiek ez dut uste batzordean esan zirenik.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Batzordean azaldu zen zalantza zen hori legalki egitea zegoen eta gure zalantzan aurrean kontsulta egin dugu.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Baina kontsulta hori berandu egin duzue. Batzordeak dira gaiak lantzeko guneak, baina beti aurpegiatzen diguzue lanketa guztia batzordean egin beharko liratekeela. Orain aipatu dituzun erabaki hauek, Osoko Bilkuran onartzea ez da erraza. Egin da kontsulta, hobekuntza moduan sartu daiteke, baina hobekuntza hori sartzeko zehaztapen asko erabaki behar dira. Pleguak konplexuak dira, lizitazioa denborarekin egin behar da eta kontuan hartuta 2026ko urtarrilaren bukaeran egungo kontratua amaitzen dela, gaur pleguak onartzea ezinbestekoa da eta ezin da aldaketa horiek txertatu. Gonbidatuko nizueke datorren lizitazioari begira (hiru urte segidan igarotzen dira), patxadaz hau aztertzeke denbora eta abagunea hartzea.

Guk ere oso garrantzitsutzat jotzen dugu zerbitzua jasotzen dutenen hizkuntza-eskubidea bermatzea. Horretarako jakin beharko genuke zerbitzua jasotzen duten horiek zein hizkuntza nahiago duten eta ea langileen artean hizkuntza horretan zerbitzua bermatzeko aukera dagoen edo zenbateraino egin behar den indarra eta formakuntza langileen zein portzentajeetan hobekuntza behar den. Horretarako guztirako denbora egon daiteke eta lanketarako nire prestutasun osoa azaltzen dut.”

Mariola Pascual Paredes (EAJ-PNV): “Guk proposamenak jasotzeko prest gaude eta ez ditugu proposamen zehatzik jaso. Hurrengorako, denon artean proposamenak landuko ditugu.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Esaten denean batzordeetan gaiak landu behar direla, guk gure eskaera berandu aurkeztu dugu baina behin eta berriz errepikatu dugu batzordeetara gaiak erabakita etortzen direla eta hurrengo astean plenoa dugula. Ulertuko duzuna da, guk lehengo astean jaso ditugun oinarrien informazioa aztertzeke denbora behar dela. Zenbait gaiek batzordeetatik pare bat aldiz pasatzea beharko lukete, ekarpenak eta proposamenak egiteko. Hau ez da ezer berria aurreko lizitaziotik dator. Oinarriak prestatu diren momentuan ba zekizuen gabezia hori zegoela. Guk berandu egin dugula kontsulta, ados!, baina balorazio modura esan, ez dela gaur asmatu den zerbait.”

Mariola Pascual Paredes (EAJ-PNV): “Aspalditik datorren gauza bada, non daude zuen proposamenak?. Denbora izan duzue prestatzeko.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Ez dezagun ahaztu, teknikariak batzordean informazioa eman zizuela eta esan zitzaizuela formakuntza hori eskaintzen zela, talde pilotu bat ere bazegoela formakuntza hori jasotzen zuena eta printzipioz, behintzat, batzordean entzundakoarekin ez zenuten beste kontsultarik egin.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Arazoa zein da, guk berandu egin dugula kontsulta edo zuek gobernu talde zareten heinean ez duzuela nahi irizpide hori txertatu?.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Zuek esaten duzue batzordeetara gaiak itxita joaten direla, baina zuen bozka ez dugu entzuten ere egiten, beti plenoan pronuntziatzen zarete. Proposamenak diktaminatu egiten dira, aukera aldatzeko dago eta kasu batzuetan aldatzen dira. Hemen ere zuen proposamenak entzuten ditugu eta lehenengo puntuan aipatu dudan bezala, egokiak direnak txertatu egiten ditugu, baina kasu honetan batzordeak hitz egindako eta teknikariak emandako azalpenekin, nahikotzat jo zen.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Gure zalantza hor azaldu zen berriro eta geratu zen kontsulta egiteko. Zuen aldetik ere kontsulta hori egitea zenuten nahi bazenuten benetan hori txertatu. Beste lehentasun batzuk baloratzen dira eta horri ez diozue heldu nahi izan.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Guretzat hori ere lehentasun bat da. Hizkuntza lehentasuna da.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Pleguetan kontratistaren betebeharrak modura aurreikusten da urtero egingo dituela, zerbitzuari atxikitako langileentzat, *gutxieneko arreta euskaraz emateko plana eta formakuntza plana*. Hori noizbait eskatu zaio kontratistari?.

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Jarraipena egiten duen teknikariari eskatu, baina noski baietz.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE).

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu).

Horren ondorioz, proposamena gehiengo osoarekin onartu da.

c.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK:

- GIZARTE ARLOAN LAN EGITEN DUTEN ELKARTEENTZAT. 2026. URTEA
2025GAED0001

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko proposamena:

“AURREKARIAK

I.- Beasaingo Udala beti aritu da elkarlanean gizarte arloan lanean diharduten herriko elkarteekin eta horretarako urtez-urte bere aurrekontuetan erakundeei diruz laguntzeko partida kontsignatu du, horretarako oinarri hauek prestatu dira.

II.- 2025-10-08: Gizarte Ongizate azpisaileko arduradun teknikoak egindako txostena.

III.- Aurrekontu-esleipena: Beasaingo udalerrian gizarte-arloan jarduten elkarteak diruz laguntzeko 2026. urterako aurreikusitako aurrekontua 100.000 eurokoa da.

Aurretiazko izapidetzea da, eta 887/2006 RGSren 56. Artikuluan jasota, deialdiaren ebazpena oinarri hauek onartu eta argitaratu eta hurrengo ekitaldian emango baita; eta hori gertatzen da normalean kreditu egokia eta nahikoa dagoelako gastuaren aurrekontu-estaldurarako.

Adierazitako zenbatekoa zenbatetsia da, eta, beraz, dirulaguntzak emateko, kreditu egokia eta nahikoa egon behar da, dirulaguntza emateko ebazpena ematen den unean.

LEGERI APLIKAGARRIA

-2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Udalerrien eskumen propioak, 17. Artikulua 10) eta 14).

-Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

-Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Diru-laguntzen Erregelamendu Orokorra.

-Diru-laguntzak arautzen dituen udal-araua.

-Beasaingo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2023-2025.

PROPOSAMENA:

Herritarrak batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik: Beasaingo udalerrian gizarte arloan lan egiten duten elkartei dirulaguntza emateko oinarriak onartzea. 2026. urtea.

Bigarrenik: Deialdia egitea, oinarriak argitaratuz.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez onartu dira aipatutako oinarriak ([Akta honen 1. eranskina](#)).

EKOIZLEEI DIRULAGUNTZAK EMATEA ETA BEZEROAK ERAKARTZEKO ETA UDAL-MERKATUAN ZUZENKO KONTSUMOA SUSTATZEKO BONUAK SALTZEA
2025OIME0005

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko proposamena:

“Beasaingo Udalaren 2023-2025eko plan estrategikoaren helburuetako bat hurbileko produktuen salmenta eta merkaturatzea sustatzea da. Horretarako, astearteko azokaz gain hilean behin izaten den bertako produktuen azoka dugu. Bi azoka horiek indartu nahian eta azokara jende berria erakarri nahian Udalak erosteta bonuak ateratzea erabaki du. Oinarri hauek helburu horri erantzuteko asmoa dute.

AURREKARIAK

1. Udalak astearteko azoka 1926an eta hilean lehen larunbateko azoka orain dela Zortzi urte jarri zuen martxan. Azken azoka horren helburua astearteko azokara etorri ezin den jendeari ere zerbitzu hau eskaintzea da.

2. Hilean behineko azoka hau martxan jarri zenetik hainbat ekintza egin dira hori indartu nahian. Besteak beste, jendeak azoka ezagutarazteko hainbat ekintza burutu dira, besteak beste, Beasaingo Udalaren web orrian azokaren eta bertako ekoizleen inguruko informazioa txertatu da eta takilak jarri dira.

3. Merkataritza azpisaileko arduradun teknikoak 2025eko urriaren 3an egindako txostena.

4. 2025ean 9 ekoizle atxiki ziren bonu-programa honetara.

LEGERI APLIKAGARRIA

-2/2016 Legea, apirilaren 7koa Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 17.artikulua, 34.

-Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, subentzioak emateari buruzkoa.

-Dirulaguntzak arautzen dituen udal-araua.

- 2023-2025erako Beasaingo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

PROPOSAMENA

Herritarrak batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo proposamena egiten dio:

Lehenik: Beasaingo Udalak bai asteartean, bai lehen larunbatean izaten diren azokak indartu eta bertara jende berria erakarri nahian azokan erabiltzeko erosketa bonuak atera nahi ditu. Erosketa bonu horien dirulaguntzen oinarriak onartzea.

Bigarrenik: Bonu horiek 20 eurokoak izango dira eta 5€-tan zatituta egongo dira. Erosleak 10€ ordainduko ditu eta Udalak beste 10€. Ekimen honetara atxikitzen diren azokako postuetan erabili ahal izango dira berauek eta pertsona bakoitzak gehienez ere bi bonu erosi ahalko ditu salmentan jartzen diren egun bakoitzean.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez onartu dira aipatutako oinarriak ([Akta honen 2. eranskina](#))

- GIDABAIMENAREN AZTERKETA TEORIKOA EUSKARAZ GAINDITZEN DUTEN BEASAINDARRENTZAT 2025OIEU0003

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeak egindako proposamena, hau da:

“AURREKARIAK

Beasaingo Udalak herritarrei erraztasunak eman nahi dizkie gidabaimena euskaraz prestatzeko eta azterketa teorikoa euskaraz egiteko.

Oinarri hauen bidez gidabaimena lortzeko probak euskaraz egitera animatu nahi dira herritarrak. Autoeskolak aspalditik ari dira azterketa teorikoa euskaraz prestatzeko eskaintza egiten, hori dela eta, dirulaguntza oinarri hauek egiten diren lehenengo urtea izanik 2025eko urtarrilaren 1eko atzeraeragina izango dute, ahalik eta jende gehienak aukera izan dezan.

LEGERIA APLIKAGARRIA

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua

Dirulaguntzak onartzen dituen Udal Ordenantza (GAO 2018-06-14)

Beasaingo Udalaren 2023-2025 urteetarako onartutako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan daude aurreikusita, zehazki ondorengo helburu estrategikoan: 3. EUSKARAREN IKASKUNTZA ETA ERABILERA BULTZATZEA ETA NORMALIZATZEA eta 3.2 EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEA, lerroan.

PROPOSAMENA

Ondorioz, Herritarren Batzordeak proposamen hau aurkeztu dio Beasaingo Udaleko Osoko Bilkurari, azter dezan:

Lehenengoa: gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz gainditzen duten beasaindarrei dirulaguntzak emateko oinarriak onartzea.

Bigarrena. – Deialdia egitea oinarriak argitaratuz.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengo iritzia azaldu dituzte:

Aritz Corsitto Agirre jaunak (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE): “Lastima da dirulaguntza azterketa gainditzeari lotuta egotea, zeren eta prestakuntza hautu bat egiten duenak hautu bat eta esfortzua egin du eta prestakuntza guztia euskaraz egiteko. Beraz, gure ustetan dirulaguntza ez du lotuta egin behar gidabaimena gaindituta egoteari.”

Bozketa eginda aho batez onartu dira aipatutako oinarriak ([Akta honen 3. eranskina](#))

- GABONETAKO KARTEL SARIKETA LEHIAKETA [2025OIGA0001](#)

GAIA: 2025-0226ko GABONETAKO KARTEL-SARIKETARAKO OINARRIAK

AURREKARIAK:

1. Ohi bezala, Beasaingo Udalak Gabonetako kartel lehiaketa bat antolatzen du Beasaingo ikastetxeetan bertan eskolatutako adingabeen sorkuntza artistikoa sustatzeko.
2. Gabonetako giroa sustatze aldera eta eskola-umeek Gabonei buruzko hausnarketa ludikoa egin dezaten eta euren inguruetan egun horiek nola bizi dituzten edo nola bizi nahiko lituzketen adierazi dezaten.
3. Proposamen-irabazle bakar bat egon ez dadin, baizik eta hainbat ideia edo planteamendu balora daitezen, ez da lan irabazle bakar bat egongo, 30 izango dira saritutako lanak.
4. Ikastetxe bakoitzeko eta Ikasketa maila bakoitzeko saridun bat egongo da. Hau da ikastetxe bakoitzak sei sari jasoko ditu.
5. Hogeita hamar kartel irabazleek 30na euroko bonua jasoko dute sari modura. Bonua Beasaingo establezimendu hauetan erabiliko da:

- Mirentxu Liburu Denda
- Jon Aranburu kioskoa
- Arteka
- Goierri kopiak

6. Bonuak 2026eko otsailaren 28rarte erabili ahal izango dira aipatutako establezimenduetan. Ondorengo kontuan hartuta:

LEGERIA APLIKARRIA

- 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorreko eta Datu Pertsonalak Babesteari eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.
- DBEOaren 6.1.a.artikulua.
- 3/2018 Lege Organikoa
- 1/1982 Lege Organikoaren, maiatzaren 5ekoa.

PROPOSAMENA:

Herritarrek batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik: 2025-26ko gabonetako kartel sariketarako oinarriak onartzea.

Bigarrenik: Boletinean gain, ikastetxeei Berdintasuna eta Gazteria azpisailaren bitartez oinarri hauek helaraztea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu dira aipatutako oinarriak ([Akta honen 4. eranskina](#))

4.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- BEASAINGO KATU-KOLONIEN KUDEAKETA ETIKORAKO PROGRAMA. 2025ZEBO0082

Alkate andreak (EAJ-PNV): “2022an, Etxeko animaliak babesteari buruzko legea onartzean, aurrerapauso bat eman zen EAEn dauden etxeko animaliak, gatibu edo gizakiaren kontrolpean dauden basa-animaliak, bai eta hiriko basa-animalien ongizatearen alde egiteko.

Horrela, hiriko katu-kolonien definizioa islatu zen legean, udalerriko eremu publiko jakin batean kokatuta dagoen eta askatasunean edo erdi-askatasunean bizi den katu-taldeak direlarik. Honekin batera, katu-kolonien kudeaketa udalena izango zela zehaztu zen, dagozkion betebeharrak eta baldintzak ezarritz.

Urteak dira Udal hau Beasaingo Lau Katu elkartearekin kolaboratzen ari dela lan hauek aurrera eramateko, eguneratzen joan garen hitzarmenaren bitartez. Orain arte barne protokoloak partekatu eta praktikan jarri diren arren, "Beasaingo Udaleko katu-kolonien kudeaketa etikorako programa"-ren onarpenarekin jauzi kualitatibo bat ematen da prozedura horiek formalki egituratuz.

Guzti honegatik, Lurralde Batzordeak Osoko Bilkura honi "Beasaingo Udaleko katu-kolonien kudeaketa etikorako programa"-ren onarpena proposatzen dio.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da “Beasaingo katu-kolonien kudeaketa etikorako programa”.

b.- KONTRATUAREN ALDAKETA: SAN INAZIO ETA ESTEBAN LASA KALEA BERURBANIZATZEKO OBRAK. 2023PROB14

Lurralde batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman da:

“AURREKARIAK

I.- "San Inazio eta Esteban Lasa kaleak berrurbanizatzeko" obra-kontratua Construcciones Otegui Gaztañaga, S.A. enpresari esleitu zitzaion, 2024-09-29ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez, eta,

ondoren, alkateak, organo horrek eskuordetuta, fidantza eta gainerako dokumentazioa aurkeztu ondoren, kontratua behin betiko esleitzea erabaki zuen 2024-03-14an.

Kontratua, 2024-03-1ean formalizatu zen. Udalak kontratistari ordaindu beharreko kopurua: 2.548.960,64 €, BEZ barne.

II.- 2025-10-23an, kontratuaren arduradunak, lurralde-arloko zerbitzuburuak, txostena eman du eta kontratu hori aldatzea proposatu du, honako hauek oinarri hartuta:

- Kontratututako obrak amaitu ondoren, San Inazio eta Esteban Lasa kaleen ondoan, baina kale horiek berrurbanizatzeko proiektuaren eremutik kanpo dauden Andre Mari, Erauskin, Igartetxe eta Martina Maiz kaleetako trafikoaren noranzkoa aldatzea aurreikusita dago.

- Andre Mari, Erauskin, Igartetxe eta Martina Maiz kaleetako trafikoaren noranzkoa aldatzeak, ziurrenik, horiek ibilgailu-zirkulazio handiagoa jasan behar izatea ekarriko du, baina, gaur egun, horien zoruen egoera hondatuta dago, antzinasunagatik eta San Inazio eta Esteban Lasa kaleak berrurbanizatzeko lanetan egindako desbideratzeengatik, eta narriadura horren tamaina ezin izan zen aurreikusi proiektua idazterakoan.

- Aurreikusitako aldaketak (256.198,35 €+ BEZ) kontratuaren hasierako prezioaren % 12,16ko igoera dakar, hau da, Kontratuen Legeak baimendutakoa baino txikiagoa.

OINARRI JURIDIKOAK

- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 153, 190, 191, 203, 204, 205, 206, 207 eta 242. artikulua (obra-kontratua aldatzea).

- Gainera, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretua (195. artikulua) eta, osagarri gisa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea (bereziki, 83., 42. eta 43. artikulua) aplikatuko dira.

- Aurrekarietan adierazitako interes publikoaren ondoriozko aldaketak ez dakar berekin unitateko prezio berriak onartzea, kontratuan aurreikusitako obra-unitateak zabaltzera mugatzen baita, baina obrak hasierako kontratuaren eremutik kanpo exekutatuko dira.

- Kontratistari entzunaldia eman zaio, eta Beasaingo Udalak eta zuzendaritza teknikoak aldaketa gauzatzeko aurrekontua zehaztu dute, unitateko prezio berak aplikatuz, eta % 10,92ko beherapena kontratistak lizitatzean eskainitako % 26ko bajaren azpitik."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira proposamenarekiko:

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "Guk batzordean azaldu genuen gure kezka, hau da, ea ez ote den egokiagoa lizitazio berri bat egitea proposatzen den aldaketaren obrak burutzeko, kontuan izanda hasierako proiektu eremutik kanpo daudela. Horretaz gain arriskutsua dela iruditzen zaigu likidazioa egin gabe dagoenean esatea zenbat diru geratuko den. Horrela esanda badirudi, teknikoki eta ekonomikoki, kontratu-aldaketa egitea dela bideragarriena baina, gure ziurtasun-falta aurrean abstenitu egingo gara."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Nik uste dut batzordean teknikarian informazio zabala eman zuela kontratu aldaketa hau formalizatzeko oportunitateari buruz eta dauden beste aukerekiko egokiena jotzen delako."

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioa: 5 (Beasaingo EH bildu)

Horren ondorioz, proposamena gehiengo osoarekin onartu da.

c.- UDALAZ GAINDIKO ADMINISTRAZIOEK ESKU HARTZEN DUTEN OBRAK EGITEKO UDAL-EKARPENAK 2024HIBO0054

- Garingo saneamendua egiteko obrei buruzko 5. ziurtagiria.

Aho batez onartu da, Garingo saneamendua egiteko obrei dagokion 5 obra-ziurtagiria, 36.421,11 €koa (BEZ barne). Dena dela, ziurtagirien zenbatekoa sustatzailearen artean banatzen denez, hau da, GFA, Gipuzkoako Ur Kontsortzioa eta Beasaingo Udala, kasu honetan udalari ordaintzea tokatzen zaion kopurua, 23.950,89 €koa da.

d.- OBRA-ZIURTAGIRIAK: SAN INAZIO ETA ESTEBAN LASA KALEAK BERRURBANIZATZEKO OBREI BURUZKO, 11. OBRA-ZIURTAGIRIA. 2023PROB0014

Aho batez onartu da, "San Inazio eta Esteban Lasa kaleak berrurbanizatzeko proiektuko obrei buruzko" 11. obra-ziurtagiria, 126.523,03 €koa (BEZ barne).

5.- MOZIOAK

a.- PODEMOS-EK AURKEZTUTAKO MOZIOA, CAFEK LEGEZ KANPOKO ASENTAMENDUAK SENDOTZEN LAGUNTZEN DUTEN PROIEKTUETAN PARTE HARTZEN JARRAITZEA ARBUIATZEKO MOZIOA. 2025IDBO0024

Alkate andreak hitza eman ondoren, Aritz Corsitto Agirre jaunak (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE), ondorengo mozioa irakurri du:

"CAFek legez kanpoko asentamenduak sendotzen laguntzen duten proiektuetan parte hartzen jarraitzea arbuiatzeko mozioa.

JUSTIFIKAZIOA

Gai honek Beasaingo enpresak munduan duen irudirako duen garrantziztatik eta CAF Nazio Batuen Erakundearen zerrenda beltzean (Israelgo gobernuaren lurralde palestinarren okupazioaren harira) sartzeari dakartzan ondorioak direla eta, mozio hau osoko bilkuran eztabaidatzea eskatzen dugu, zinegotzi guztiek beren iritzia eman dezaten beren botoaren bidez.

Mundu osoak Gazako zerrendako su-etenari eta bake-prozesuari begiratzen dion bitartean, Israelgo Estatuak palestinarren lurak okupatzen eta bertako biztanleak lekualdatzen jarraitzen du.

Legez kanpoko okupazio-estrategia horretan kokatzen da CAFek NBEren zerrenda beltzean postu bat izatera eraman duen trenbide-azpiegitura.

Hori dela eta, azken hilabeteetan enpresa beasaindarra komunikabideetan maiz ikusi dugu, Israelekin eta bere proiektu kolonialista eta espansionistarekin duen harreman komertzialagatik. Gure ustez, horrek enpresari eta, hedaduraz, Beasaingo udalerrri osoari ospe txarra ekar diezaioke.

Horregatik guztiagatik, premiazko zat jotzen dugu Beasaingo Udalak bere iritzia ematea CAFek gaur egun Israelen duen kontratuaren eta proiektuaren inguruan, beasaindarrek eta inplikaturako enpresak berak eza gut dezaten.

CAF enpresak, egoitza Beasainen duenak, Jerusalemgo tranbia arinaren proiektuan parte hartzen du. Egitura honek asentamenduak lotu eta Jerusalem ekialdea zeharkatzen duten trazadurak ditu bere baitan, nazioarteko zuzenbideak aitortutako okupaziopeko lurraldeetan.

Duela gutxi, NBEk Israelek Palestinan egindako krimenen enpresa onuradunen zerrenda beltzean sartu du CAF, Zisjordania okupatuan jarduteagatik. Gertakari honek enpresak giza eskubideen urraketak dakartzaten proiektuetan duen inplikazioa berrikusteko eskakizuna berresten du.

Gainera, Espainiako Gobernuko Kontsumo Ministerioak berak iragarri du CAFen jarduera ikertuko duela, okupaziopean dauden lurraldeetako proiektuetan parte hartzeak eragin ditzakeen urraketak direla eta.

Beasaingo Udalak enpresa pribatu bat nazioarteko kontratu bati uko egitera behartzeko eskumenik ez duen arren, giza eskubideak urratzen dituzten enpresa-estrategien aurrean gaitzespen jarrera irmoa adierazteko zilegitasun eta erantzukizun etiko nahiz politiko osoa ditu.

CAF Beasaingo enpresa den heinean, udalerrri honek haren jardunbideen eta justiziaren, giza eskubideen eta erantzukizun sozial korporatiboaren balioen arteko oreka egokia eskatzeko eskubide eta betebeharra ditu.

Erantzukizun sozial korporatiboak enpresek giza eskubideen urraketak eragin ditzaketen egoeretan parte hartzea edo haietaz baliatzea saihesteko egin beharreko ekintzak aurrera eraman ditzatela exijitzen du.

ERABAKI-PROPOSAMENA

Beasaingo Udalak:

- 1. CAFek legez kanpoko asentamenduak sendotzen laguntzen duten proiektuetan parte hartzen jarraitzea ez duela onartzen adierazten du.*
- 2. CAFek nazioarteko zuzenbidearen arabera legez kanpo okupatutako lurraldeak zeharkatzen eta lotzen dituzten Jerusalemgo tranbiaren proiektuekin duen kontratua berrikustea eta, hala badagokio, berehala eta publikoki etetea nahi duela adierazten du.*
- 3. Europako legeria eta giza eskubideak errespetatuz, CAFek giza eskubideei buruzko beste auditoria independente bat egin dezan nahi duela adierazten du, proiektu horietan egiten dituen jardueren dagokienez. Gainera inpaktu negatiboak identifikatzen badira neurriak har ditzala, giza eskubideen eta enpresa-erantzukizunaren nazioarteko estandarren arabera.*
- 4. Alkateari eskatzen dio bidal diezaiola akordio hau CAFeko zuzendaritzari, Eusko Jaurlaritzari, Eusko Legebiltzarrari eta giza eskubideen aldeko erakundeei, eta zabal dezala ahalik eta gehien herritarrek jakin dezaten.*
- 5. Argi adierazten du, Beasaingo ordezkaritza demokratikoa den aldetik, nazioartean eragina duten gai etikoei buruzko jarrera publikoa hartzeko eskubidea ez ezik erantzukizuna ere baduela, batez ere gai horiek udalerriri lotutako erakunde eta nazioarteko zuzenbidearen urraketek buruzkoak diren heinean.”*

Jarraian, Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) aurkeztutako ondorengo mozio alternatiboa irakurri du:

“EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Creemos que es especialmente relevante fomentar una reflexión social y empresarial sobre las relaciones comerciales con países en los que se vulneran derechos fundamentales. En este sentido, ejemplos como las políticas aplicadas por el Estado de Israel en los territorios palestinos ocupados deben invitar a la sociedad vasca, a las instituciones públicas y al tejido empresarial a examinar cómo los vínculos económicos pueden contribuir o contradecir los principios de justicia, igualdad y respeto a los derechos humanos.

Por todo lo expuesto, el Pleno del Ayuntamiento de Beasain INSTA a:

- 1. Revisar y, en su caso, elaborar y publicar un inventario actualizado sobre las relaciones económicas, comerciales o contractuales que el Ayuntamiento mantenga con empresas israelíes y compañías que participen de manera directa o indirecta en actividades vinculadas a la ocupación ilegal o represión de*

la población palestina, conforme al derecho internacional humanitario y las resoluciones de Naciones Unidas con el objeto de finalizarlas de conformidad con la normativa vigente.

2. Garantizar que la contratación pública respete las normas internacionales de Trabajo y los principios del Derecho Internacional, incorporando cláusulas sociales y los procesos de diligencia debida en materia de derechos humanos, en coherencia con los compromisos institucionales del Ayuntamiento de Beasain y los estándares de la Unión Europea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

Aritz Corsitto Agirre jaunak (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE): “Zuek aurkako mozioa deitzen diozue, baina guk ez diogu ikusten zer duen aurkakoa dela esateko. Zuen mozioa aurreko hilabetean aurkeztu izan bazenuten, dudarik gabe babestu egingo genuen baina, zuek mozioa hau ekarri duzue gurea atzera botatzeko. Iruditzen zaigu mozio hau ari zaretela erabiltzen CAFen izena guztiz ezabatzeko. Azken finean Beasaingo herriarekin lotuta dagoen eta Israelgo genozidioarekin aurka lotura duena. Badakigu nork sartu duen zerrenda batean. Harritu egiten gaitu zuen aurkako mozioak. Beste alde batetik esan “*copia y pega*” egin duzuela urriak 23an Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zen mozioari. Ez dugu uste Eusko Legebiltzarra eta Beasaingo udala mahai berean daudenik. Ez dugu uste Beasaingo udalak Beasaingo enpresarekin kontratuk egiten dituenik eta ez dugu uste aplikazio-maila berdina duenik. Ez dugu ulertzen inbentarioa egiteko eskaria, horretarako lana eta denbora erabiltzea, behintzat momentu honetan, zerrenda bat dugulako argi eta garbi esaten duena zeintzuk diren okupatutako lurretan egiten diren proiektuen onuradunak .”

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Beasain es donde está ubicada CAF, pero esa no es la razón de presentar la moción alternativa. Una y otra vez nos hemos posicionado ante esta situación en la que no estamos de acuerdo en que el Ayuntamiento tenga relación con alguna empresa que vulnere los derechos humanos. No hemos presentado esto para eliminar la presencia en prensa de la empresa CAF. Está dentro del listado de la ONU, pero también ha salido la noticia de que el Ministerio de Consumo va a estudiar y analizar la implicación de CAF en estos proyectos y por ende, en la vulneración de los derechos humanos. Ante hechos probados que pueda haber que en Beasain alguna empresa vulnere los derechos humanos, el Ayuntamiento de Beasain tendrá que posicionarse y si así fuera nos posicionaríamos en contra.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Oker ez banabil hirugarren aldia da gai hau edo antzekoa plenoan aurkeztu dela. Tamalez, Gazan, egoerak berdin jarraitzen du. Nik uste dut bakoitzaren jarrerak garbi daudela. Bere garaian ere bozeramaile-taldean mahai gainean jarri zen denok batera zerbait egiteko aukera eta orduan, denbora faltagatik ez zen lortu.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Hasierrek esan duen moduan badira hiru pleno gai honen inguruan eztabaidak izanez. Gobernu taldearen izenean hitz egingo dut baina jarraian esan behar dudanari buruz, uste dut denok bat egingo genukeela eta da erabat gaitzesten dugula Israel estatua Gazako herritarrengan egiten ari den genozidioa eta giza-eskubideen urraketa larria. Horretan ados gaude. Harritu egin zaitu guk aurkako mozio hau Legebiltzarretan onartutakoa aurkeztea, baina guri ere berriro harritzen gaitu zuen jokatzeko modua, hau da, bozeramaile-taldean denak bat egiteko zerbait amankomunean ekarri beharrean prentsara jo zara berriro ere talde-politiko bezala. Horrek ere asko esan nahi du. Aurreko hilabetean plenoa baino bi edo hiru egun lehenago, intentzioa aitortu genuen denok bat egiteko, posible izan ez zena, denbora justua genuelako, baina orain denbora izan dugu eta jokatzeko modua berriro ere berdina izan da. Gure alderdiak talde sozialistarekin batera egin duguna da Legebiltzarrean onartutako hona ekarri. Gogoeta bat egitea proposatzen dugu eta ikustea enprekin loturarik badagoen, baina ez zerrenda batean azaldu delako zeren eta zerrenda

hori ere kontrastatu egin behar da eta Evak aipatu duen bezala Ministerioak horretarako konpromisoa hartu du jakiteko ea hori zilegi den edo ez. Errazena hitz egitea da baina egin behar dena da, akzioak burutu eta aurrera eramane. Horrek eramaten dut inbentarioa egitea Legebiltzarraren babesarekin, zeren eta guk gure baliabideak ditugu baina Legebiltzarrak inbentarioa egiteko aurrera pausoa ematen badu, Beasaingo udala ere hor izango da, CAF edo beste enpresa bat izan. Guk Israelgo estatuarekin ez daukagu erlazio zuzenik. EH Bilduko alkateak ere prentsa-aurrea egin zuten eta esan zuten erlazio horiek hautsiko zituztela. Kuantifikatu egin behar da benetan ikusteko ea udalek zein mailetakoa erlazioz dituzten.”

Aritz Corsitto Agirre jaunak (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE): “Gogoeta egiteko beharra oso zuzena iruditzen zait baina inbentario horren benetakoa balioa zein den ez dut oso ondo ulertzen. Batez ere esan duzuelako Ministerioak ere egin behar duela baina gero hori ere kontrastatu egin beharko da eta denbora oro atzeratzen ari gara. Nik uste dut Beasaingo udalak badakiela gutxi-gorabehera zein enpresek dituzten harremanak. Guri erakutsi zeniguten aurreko urteko apirilak 17ko babes-gutuna CAFekin sinatutakoa Olanan proiektuaren inguruan. Lehenengo eta bigarrenengo puntuen arteko harremana da garrantzitsua eta ez dut uste lehenengo egin beharra dagoenik.

Prentsara jo izana. Nik uste dut alderdi bakoitzak bere tamaina eta baliabideak ditu. Zuek duzuen indarra eta pisua euskal gizartean guk, argi eta garbi, ez daukagu. Guri entzutea nahi badugu, beste bide batzuk jarraitu behar ditugu. Ez zait iruditzen horrek halako gaizki-egona sortu behar duenik.”

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Yo creo que en aras de la transparencia realizar el inventario es positivo y esto tiene una importancia máxima.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, lehenik eta behin mozio alternatiboa bozkatu da. Ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 6 (Beasaingo EH Bildu, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Beraz, EAJ-PNV eta Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak aurkeztutako mozio alternatiboa onartu da gehiengo osoarekin eta horren ondorioz ez da bozkatu Podemos-ek aurkeztutako mozioa.

b.- EAJ-PNV ETA PSEREN MOZIOA, ELKARBIZITZAREN ALDE ETA ERTZAINZTA ETA UDALTZAINGOEN DEFENTSAN. 2025IDBO0027

Alkatea andreak (EAJ-PNV), ondorengo EAJ-PNV ETA PSEren mozioa irakurri du:

“Herriarren arteko elkarbizitza eta segurtasuna dira gizarte demokratiko ororen oinarritzko zutabe. Ertzaintza eta udaltzaingoak, Euskal Polizia Kidego guztiak, funtsezko elementu dira herriarren segurtasuna eta legeen betepena bermatzeko.

Euskal herrikide ditugun aldetik, babesten duten Herriak hurbil egiten dute beren lana, mendebaldeko gizarteetako estandar demokratikoak betez. Erakundeei dagokie Ertzaintzak zein udaltzaingoek gure gizartean egunero egiten duten lana babestea eta balioestea.

Hala ere, azken asteotan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldeetan, udaltzaingoak eta Ertzaintzaren kontrako eraso larriak eta seinalamenduak egin dira, soilik beren lana egin dutelako. Polizien bulego eta tokiak erasotzera eta euskal polizien lana eragoztera iritsi dira.

Halaber, seinalamendu eta mehatxu larriak egin dira hiritarrek aukeratuta gobernuan lan egiten duten ordezkari publikoen kontra. Iraganeko garaia gogora ekartzen dizkiguten jarduera eta jarrerak dira horiek. Erakunde guztiek eta ordezkari publikoek ekintza hauek guztiak salatu eta gaitzetsi behar dituzte, sekula babestu gabe, berriro gerta ez daitezen.

Hori dela eta Beasaingo Udalak, errespetuan oinarritutako kultura demokratikoa eta elkarbizitzaren printzipioak betez, ondorengoak proposatzen ditu:

- 1) Ertzaintzaren, udaltzaingoen eta ordezkari publikoen kontrako erasoak, seinalamenduak eta jokaera bortitzak gaitzestea.*
- 2) Ertzaintzak eta udaltzaingoez hiritargoa babesteko egiten duten ezinbesteko lana aitortzea, eta egiten duten lana erabat babestea.*
- 3) Ertzaintzaren, udaltzaingoen eta ordezkari publikoen kontrako jokaera bortitzak eta mehatxuak bertan behera eskatzeko deia egitea, errespetuan oinarritutako elkarbizitza bermatzeko.*
- 4) Ertzaintza euskal autogobernuaren adierazgarri eta polizia hurbil eta demokratikoaren eredu dela adieraztea."*

Jarraian, Alkateak hitza emanda, Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak EH BILDUK aurkeztutako aurkako ondorengo mozioa irakurri du:

EH BILDUREN AURKAKO MOZIOA DEMOKRAZIAREN ALDEKOA ETA POLIZIA-EREDUA BERRIKUSTEKO. 2025IDBO0028

"Azken asteotan, Euskal Herriko hainbat tokitan zenbait erakunde eta ordezkari publikoen aurkako hainbat gertaera eta adierazpen izan dira, adierazpen askatasunaren eta espazio publikoaren errespetuaren muga onargarriak gainditu dituztenak. Udal hau ez dator bat jarduteko modu horiekin, eta uste du modu egokian baztertu behar direla, axolagabekeria eta gehiegizko jardun interesatua saihestuz.

Ildo horretan, Udal honek gaitzetsi egiten du gertakari horien instrumentalizazio politikoa, kritika sozial eta politiko osoa kriminalizatzeko, bai eta bidezko protesta ere. Logika bat inposatu nahi da, non indar polizialekiko edo horiek zuzentzen dituztenekiko ezinegon edo zalantza adierazpen oro eraso onartezintzat interpretatzen den automatikoki, eta hori printzipio demokratikoen aurkakoa da.

Polizia-kidegoen jarduera kritikatzeko, haien funtzionamendu-eredua zalantzan jartzea edo abusu-gertakariak salatzea ez da bizikidetzaren aurkako eraso. Bizikidetzaren aurka egiten duena disentsorako espazio oro ixtea da, erakundeak kritikaren aurrean blindatzea eta erakundeen gaitzespenaren balioa hutsaltzea.

Gertakari horiek neurrigabeki dimentsionatzen diren bitartean, herritarren bizi-kalitateari eragiten dioten sakoneko eztabaidak isilarazten dira: Osakidetzaren endekatzea, etxebizitza-larrialdia, zaintza-krisia edo desproporzionatutzat jotako polizia-interbentzioekiko kezka sozial gero eta handiagoa.

Arkauteko Akademiako zuzendariak, bere taldearekin batera, dimisioa eman berri du, barne-erresistentziekin talka egin ondoren. Horrek erakusten du sistemak egiturazko berrikuspena behar duela.

Horregatik guztiagatik, Beasaingo udaleko Plenoak, honako hau ADOSTEN DU:

- 1.-Erakundeekiko errespetuaren edo adierazpen-askatasunaren bidezko erabileraren mugak gainditzen dituen jarduera oro gaitzestea.*
- 2.-Kritika politiko eta sozial legitimoa eta herritarren protesta kriminalizatzeko, izaera horretako gertaera puntualak erabiltzeko saiakera erabat baztertea.*
- 3.-Berrestea kritikarako eskubidea, baita polizia-indarrekiko ere, edozein demokrazia osasungarriren muinaren parte dela, eta ezin dela murriztu edo deslegitimatu.*

4.- Eusko Jaurlaritzari eskatzea polizia-eredua sakon berrikusteko hausnarketa eta herri prozesua abiatu dezala, gardentasuna, kontrol demokratikoa, proportzionaltasuna eta zerbitzu publikoa bermatzeko.

5.-Indar politiko guztiei dei egitea eztabaida instituzionala herritarrei eragiten dieten egiturazko arazoetan zentratzera, hala nola, osasun publikoa, etxebizitza, zainketak, lan-eskubideak eta polizia-eredua.”

Segidan, Alkateak hitza emanda, Aritz Corsitto Agirre jaunak ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDEk aurkeztutako aurkako ondorengo mozioa irakurri du, alde zuzenetik esanez ez dituela bat datozen puntuak adieraziko, baizik eta bakarrik gehikuntzak (2025IDBO0027):

“BIZIKIDETZAREN ETA DEMOKRAZIAREN ALDEKO MOZIOA/ADIERAZPENA.

“Beasaingo Udalak, kultura demokratikoan eta errespetuan oinarritutako bizikidetzaren printzipioei jarraiki, honako hau proposatzen du:

1. Ertzaintzaren, Udaltzaingoaren eta ordezkari publikoen aurkako indarkeriazko eta mehatxuzko jokabideei amaiera emateko deia egitea eta librean protestarako zilegizko eskubidearen kriminalizazio gaitzestea, izan ere Europako gomendioak zuzenbidean oinarritutako Estatu batek behar duen polizia nahitaezko neutraltasuna hautsi nahi dute.

2. Beasaingo Udalaren osoko bilkurak babesa adierazten die Ertzaintzari eta Udaltzaingoari, eta aldi berean poliziaren erantzun egokia bermatzea oso garrantzitsua dela azpimarratu nahi du; beti proportzionaltasun, premia eta egokitasun irizpideak kontuan hartuta, eta uneoro neurri hertsatzaileak eta indarra erabiltzean giza eskubideen ikuspegia oinarri hartuta. Europako Kontseiluak, Europako Batzordeak eta nazioarteko beste erakunde batzuek eskatzen duten bezala, agintaritzako agenteen eta herritarren arteko harremanetan konfiantzaren, zerbitzu publikoaren, segurtasun juridikoaren eta arbitrariotasunaren debekuaren printzipioak bete daitezken.

3. Eusko Jaurlaritzari polizia-eredua berrikusteko deia egitea, hurbiltasunean, gardentasunean, proportzionaltasunean eta herritarren zerbitzuan oinarritutako Ertzaintza eta udaltzaingoak bermatzeko.

4. Beasaingo osoko bilkurak Eusko Jaurlaritzari eta Udal Gobernuari eskatzen die kode deontologikoari eta jokaera egokiei buruzko polizia-prestakuntza (hasierakoa eta etengabea) indartzeko, polizia jardunean gerta daitezkeen tentsio-egoeren aurrean autokontrolaren beharra azpimarratuz.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Aritz Corsitto Agirre jaunak (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE): “Guk zuen mozioarekin orokorrean ados gaude baina iruditzen zaigu oso garrantzitsua dela polizian lana kritikatzeko eta iritzi-askatasuna bermatzeko neurriak hartzea ezinbestekoa dela. Norbaitek zerbait gaizki egiten badu, eskubide osoa izan behar du gizarte osasuntsu batek, jokaera hori gaitzesteko.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH bildu): “Nik uste dut bakoitzak bere mozioan jarrera azaldu duela.”

Alkatea andreak (EAJ-PNV): “Nik uste dut mozioak zabalak direla eta bakoitzaren ideia argitzen dutela. Beraz bozketara pasatuko gara.”

Lehenik eta behin EH Bilduren mozioa bozkatu da. Ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Aurkako botoak: 11 (EAJ-PNV, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Abstentzioak: 1 (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Aurkako botoak aldeko baino handiagoak direnez, ez da onartu.

Bigarrenik, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDEren mozioa bozkatu da. Ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 1 (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Aurkako botoak: 9 (EAJ-PNV)

Abstentzioak: 7 (Beasaingo EH Bildu, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak aldeko baino handiagoak direnez, ez da onartu.

Hirugarrenik, EAJ-PNVren mozioa bozkatu da. Ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Abstentzioak: 1 (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Aldeko botoak aurkakoak baino handiagoak direnez, gehiengo osoarekin onartu da mozioa

6.- BERRI EMATEA. Ezagutzera eman dira:

- 2025eko irailaren 22tik urriaren 26ra emandako Ebazpenak.
- 2025eko irailaren 22tik urriaren 26ra emandako Ebazpenak kontratu txikiei buruz.

7.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

1. ERANSKINA

BEASAINGO UDALERRIAN GIZARTE ARLOAN LAN EGITEN DUTEN ELKARTEEI
DIRULAGUNTZA EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK. 2026. URTEA.

ZIOEN AZALPENA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17,1 artikuluan, udalerriaren eskumen propio gisa aurreikusten du:

- 10) Osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea.
- 14) Diru-sarreraren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea

Horretan oinarrituta, Udalaren helburua da zaugarritasun egoeran (mendekotasun/desgaitasun egoeran, babesgabetasun arriskuan eta gizarte bazterketako egoeran) dauden kolektiboen beharrei aurre egiten eta arazo espezifikoak konpontzen lagunduko duten ekintzak sustatzea, bai eta elkartasuna sustatzeko sentsibilizazio-ekintzak sustatzea ere. Zehazki, helburu hauek dituzten jarduerak:

- Elkarte-bizitza bultzatzea.
- Herritarren arteko elkartasuna sustatzea.

- Beasaingo herritarren ongizatean laguntzea.

Horretarako, dirulaguntzak emateko oinarri hauek prestatu dira, eta aurrerago adieraziko dira, honako hauek kontuan hartuta:

-Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen erregelamendua, 887/2006 Errege dekretuaren bidez onartua.

-Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (2018/06/14GAO).

-Beasaingo udaleko dirulaguntzen Plan estrategikoa 2023-2025 (1. Helburu estrategikoa: gizarte-ekintza sustatzea: 1.4: gizarte-lankidetzeta eta garapenerako laguntza).

Laguntza horiek, azken hamarkadetan onartu eta eman direnak, lagungarri izan dira aurrez aipatutako helburuak lortzeko, udalerriko gizarte-izaerako elkarreei eusteko eta herritarren beharrak asetzeko laguntza-sare bat sortzeko.

1.- XEDEA

Oinarri hauen xedea da Beasainen jarduten duten eta arreta egoitza/lokal iraunkorra Beasainen duten elkarreentzako laguntzak arautzea, gizarte-arloko jarduerak edo/eta programak garatzeko eta elkarleen funtzionamendu-gastu arruntentzat.

2.- AURREKONTUA

Hurrengo oinarrietan ezarritako laguntzak finantzatzeko aurreikusitako aurrekontua 100.000€-koa da.

Aurretiazko izapidetzea da, eta 887/2006 RGSren 56. Artikuluan jasota, deialdiaren ebazpena oinarri hauek onartu eta argitaratu eta hurrengo ekitaldian emango baita; eta hori gertatzen da normalean kreditu egokia eta nahikoa dagoelako gastuaren aurrekontu-estaldurarako.

Adierazitako zenbatekoa zenbatetsia da, eta, beraz, dirulaguntzak emateko, kreditu egokia eta nahikoa egon behar da, dirulaguntza emateko ebazpena ematen den unean.

Dirulaguntza jaso dezakete:

- a) Eremu soziosanitarioko proiektuak: 3.000 €
- b) Gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsonentzako proiektuak: 10.000€
- c) Desgaitasuna duten pertsonentzako proiektuak: 10.600€
- d) Elkartasuna sustatzeko sentsibilizazio-ekintzetara zuzendutako proiektuak: 4.000€
- e) Pertsona jubilatuei eta adinekoei zuzendutako proiektuak, 72.400€, honetara zuzenduak:

- Arreta eta laguntza eskaintzea: 4.000€

- Bizilagunen arteko topaketa eta auzotarrek gizarte-jardueretan parte har dezaten erraztea eta bultzatzea: 68.400€

Aurkeztutako eskabideak aztertu ondoren ez bada agortzen adierazitako xede bakoitzari esleitutako gehieneko zenbatekoa, aplikatu gabeko zenbatekoa gainerakoetara eraman ahal izango da.

3.- ERAKUNDE ONURADUNAK

Oinarri hauetan ezarritako dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte nortasun juridikoa duten eta irabazi-asmorik ez duten erakundeek (elkarteeak), baldin eta udalerrian lan egiten badute eta arreta egoitza/lokal iraunkorra Beasainen badute edo udalerriko erakunde batekin lankidetzan aritzea programa era garatzeko eta gauzatzeko.

Erakunde horiek egunean izan beharko dituzte Gizarte Segurantzarekiko eta Udal eta Foru Ogasunarekiko betebeharrak.

4.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

4.1-Beasainen beasaindarren interes orokorrak edo sektorialak defendatzeko garatzen diren gizarte arloko jarduera edo programak.

4.2-Entitatearen funtzionamendu-gastu arruntak (hornidurak, materialak,...):

Gizarte arloko jarduera edo programatzat hauek hartuko dira:

- Zaurgarritasun egoeran dauden (mendekotasuna/desgaitasuna, bazterkeria, immigrazioa eta adineko pertsonak) kolektiboen beharrak arintzen eta arazo espezifikoak konpontzen laguntzen duten ekintzak.
- Elkartasuna sustatzeko sentsibilizazio-ekintzak.

5.-HAUTAKETARAKO IRIZPIDEAK

Proiektuak behar bezala baloratzeko ondorengo hautaketa irizpideak egiaztatzen duten agiri guztiak aurkeztu beharko dira.

Gehieneko puntuazioa 100 puntukoa da.

Gutxienez 30 puntu lortzen dituzten proiektuek soilik jaso ahal izango dute dirulaguntza baldin eta helburu hauek badituzte:

- Zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen zuzentzea (mendekotasuna/desgaitasuna, bazterkeria, immigrazioa eta adineko pertsonak).
- Elkartasuna sustatzea, herritarrei oro har zuzenduta.

Erakunde eskatzaile bakoitzak proiektu bakarra aurkeztu ahal izango du laguntza deialdi honetara.

Banaketa- eta puntuazio-irizpideak:

1. Ordezkaritza, hau da, erakundeari atxikitutako Beasaingo bazkide edo/eta pertsona boluntarioen kopurua.

- 1 - 10 bazkide: 5 puntu
- 11 - 20 bazkide: 10 puntu
- 21 - 30 bazkide: 15 puntu
- 31 - 40 bazkide: 20 puntu
- 41 bazkidetik gora: 30 puntu

Erakundearen ziurtagiria aurkeztu beharko da, elkartekide kopurua zehazten duena.

2. Dirulaguntzaren xede den jardueraren edo programaren helburuek herritarrengan duten interes- edo baliagarritasun-maila:

2.1.-Jardueren aldizkakotasuna

- Egunero: 25 puntu
- Astero: 20 puntu
- Hilabetero: 15 puntu
- Bi hilean behin: 10 puntu
- Hiru hilean behin: 5 puntu
- Maiztasun gutxiagorekin: 0 puntu

Beharrezkoa da aldizkakotasuna agirien bidez justifikatzea: argazkiak, kartelak, prentsa-oharrak, web-orriaren informazioa, etab. bestela, ez da irizpide hau puntuatuko.

2.2.Udalerriko beste elkarte edo erakunde publiko zein pribatu batzuekin lankidetzan aritzea

- Elkarte batekin: 2 puntu
- Bi elkarteekin: 5 puntu
- Hiru elkarteekin: 10 puntu
- Hiru elkarte baino gehiagorekin: 15 puntu

Beharrezkoa izango da erakunde laguntzaileen hitzarmenak edo zinpeko aitortpena aurkeztea, udalerriko beste elkarte edo erakunde batzuekin parte hartzea justifikatzeko; bestela ez da puntuaziorik emango.

3. Gaitasun ekonomiko autonomia eta beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jasotzen dituzten laguntzak.

3.1- Bakarrik Beasaingo Udalari dirulaguntza eskatu zaion proiektua: 15 puntu.

3.2- Beasaingo Udalari dirulaguntza eskatu zaion proiektua eta erakunde publiko edo/eta pribatu batek edo batzuek batera kofinantzatutako proiektua: 25 puntu.

Puntu horiek lortzeko, justifikazio-agiria aurkeztu beharko da: erakundeak berak finantzatzeko konpromisoa, beste erakunde batzuekin batera finantzatzeko eskaera edo ebazpena...

4. Onuradunak

4.1- Sektore edo kolektibo espezifikoak: 5 puntu.

4.2- Udalerriko biztanleria, oro har: 10 puntu.

Xede bakoitzeko, honela finkatuko da eman beharreko dirulaguntza:

1.-Aurkeztutako proiektuak baloratu; dagokien puntuazioa ematen zaie.

2.-Aurkeztutako proiektu guztiek lortutako puntuen batuketarekin zatitzen da aurrekontua, eta horrekin puntu bakoitzeko prezioa lortzen da.

3.-Puntuko prezio hori proiektu bakoitzak lortutako puntuekin biderkatzen da. Eskaera bakoitzari dagokion laguntza ekonomikoa izango da emaitza, baina inoiz ez da izango eskatutako zenbatekoa baino handiagoa.

Laguntzak eskatzen dituzten erakunde berriei dagokienez, hau da, oinarri hauek onartzen diren egunetik 2 urte baino gutxiagoko antzintasuna dutenei dagokienez, dirulaguntza lortzeko ez da beharrezkoa izango aurkeztutako proiektuak ezarritako 30 puntuko muga lortzea.

6.- ESKAERAK. AGIRIAK

Eskaerak Udaletxean aurkeztu behar dira, honako agiri hauekin batera:

-Eskaerari dagokion inprimaki ofiziala, erakunde sinatzailearen ordezkari izateko legeko gaitasuna duen pertsonak sinatua.

(I eranskina)

-Laguntzea eskatzen den ekintza edo programari buruzko txosten zehatza, behar bezala sinatuta.

-Dirulaguntza eskatzen den proiektu, jarduera edo programa espezifikoaren gastu eta diru-sarreraren aurrekontua, behar bezala sinatuta (II eranskina).

-Hautaketa-irizpideak baloratzeko dokumentuak (Bazkideak, argazkiak, kartelak, prentsa-oharrak, web-orriaren informazioa, erakunde laguntzaileen hitzarmenak edo zinpeko aitortpena erakundeak berak finantzatzeko konpromisoa, beste erakunde batzuekin batera finantzatzeko eskaera edo ebazpena...), behar bezala sinatuta.

-Erakunde eskatzailearen IFKren kopia.

-Erakunde eskatzailearen estatutuak. Estatutuak, diru-laguntza lehenengo aldiz eskatzen duten erakundeek eta estatutuetan aldaketaren bat egin duten erakundeek bakarrik aurkeztu beharko dituzte.

-Sinatzailea erakunde eskatzailearen ordezkari dela egiaztatzen duen agiria.

7.- DOKUMENTAZIO ELKARRERAGILEA ETA EGIAZTAGARRIA.

1. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura

Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

2. Beasaingo Udala Euskadi Nisae-ko administrazioen elkarreragingarritasun- eta segurtasun-korapiloaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzeko eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

3. Deialdi honetan, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:

a) Gipuzkoako Foru Aldundia: Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

b) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra: Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

4. Eskatzailea egiaztapen horren aurka badago, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

5. . Udalak egiaztatzen badu eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe edo nahikoa ez dela, 10 egun balioduneko epea emango dio eskatzaileari ez-betetzea edo akatsa zuzentzeko; epe horretan zuzenketarik egin ez bada, eskabidea artxibatu egingo da, beste izapiderik gabe.

8.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAO n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen eskabideak aurkezteko epea, eta 2025-12-12an amaituko da.

Eskaerak, telematikoki aurkeztu beharko dira Beasaingo Udalaren www.beasain.eus helbidean.

9.- PROPOSAMENAK EGIN ETA EBAZTEA.

Balorazio-batzordea arduratuko da aurkeztutako dokumentazioa aztertzeaz eta proposamena prestatzeaz. Proposamena alkatetzan sartuko da, egindako eskaera onartu edo ukatzeko ebazpena emateko.

Honako hauek izango dira Balorazio Batzordeko kideak:

-Gizarte Ongizate azpisaileko arduradun teknikoa.

-Gizarte Ongizate azpisaileko 2 teknikari.

10.- DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan Udalari jakinarazi beharko zaio. Hala ere, ezin daiteke inolaz ere gain finantzazio kasurik izan; hau da, beste entitateekin batera dirulaguntza moduan emandako kopurua ezin da gastuaren balioa baino handiagoa izan.

11.- UDAL ZORRAREN KONPENTSAZIOA

Laguntzaren entitate onuraduna Udal Ogasunekiko zordun denean eta zorra mugaeguna igarotako zor garbi eskagarria denean, Udalak konpentsatu egingo du zor zaiona.

12- ERAKUNDE ESKATZAILEARI JAKINARAZTEKO EPEA

Alkatetzak hartutako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaio dirulaguntzaren eskatzaileari, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere 2 hilabeteko epean.

13.- ORDAINTZEKO MODUA

Dirulaguntza honela ordainduko da:

- Emandako dirulaguntzaren % 90, ebazpenaren datatik bi hilabetera.
- Emandako dirulaguntzaren % 10, bi hilabeteko epean, aurkeztutako proiektu osoa justifikatu ondoren.

14.- ERAKUNDE ONURADUNEN BETEBEHARRAK

1.- Diruz lagundutako jardueren finantzaketaren izaera publikoa behar bezala adierazi eta hedatzea, onuradunak aldezturik eskatuta Beasaingo Udalak helarazitako anagrama eta logotipoak karteletan, oroipen plaketan, inprimatutako materialetan, bitarteko elektroniko eta ikus-entzunezkoetan eta komunikabideetako aipamenetan erabilia.

2.- Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen (23., 25., 26. 27. artikulak), apirilaren 7ko 2/2016 Legea eta azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuan (2. atala) ezarritakoa betetzea, bertan adierazten da jarduera guztietan bermatuko dela euskararen erabilera, hau da:

Jarduerak euskaraz edo ele bitan egingo dira. Mezu idatziak (kartelak, esku-orriak, gonbidapenak, deialdiak, publizitatea...) eta ahozko komunikazioak (aurkezleak, hizlariak, musika...) gutxienez euskaraz egingo dira, eta, ele bitan eginez gero, euskarari lehentasuna emanda.

Dirulaguntzaren onuradunak hizkuntzaren tratamendua aurreikusi egingo du hirugarrenekin zerbitzuak kontratatzerakoan edo honakoak egiterakoan: bilerak, hitzaldiak, jendaurreko ekitaldiak, idatzizko komunikazioa (informazio-orriak, kartelak, gutunak, oharra...), megafonia, web-orria, WhatsApp-taldea...

3.- Programatutako jardueretan kontuan hartuko dira berdintasun-irizpideak (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabeko Bizitzeta-rako Legearen testu bategina onartzen duena).

4.- Diru laguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako funts publikoak itzultzea.

5.- Eginkizunen garapenean eragin litezkeen kalte eta guztiak estaltzeko moduko erantzukizun zibileko poliza bat izenpetzea.

14.- DIRULAGUNTZA EGIAZTATZEA

Dirulaguntza zuritzeko garaian kontuan hartu beharreko kopurua aurkeztutako proiektu osoarena izango da.

Erakunde onuradunek ondoren aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dizkiote Udalari:

A) Burututako programari edo jarduerari buruzko memoria xehea. (III. eranskina) .

1. Egindako jarduerak eta egutegia.
2. Dirulaguntzaren xede den programa gauzatu dela egiaztatzen duen dokumentazioa (argazkiak, kartelak, programak...)
3. Artatutako Beasaindar pertsonen kopurua (emakumezkoak, gizonezkoak), ekintza bakoitzeko.

B) Justifikazio-kontu sinplifikatua: jardueran izandako gastu eta inbertsioen zerrenda xehatua hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, egite data eta, hala badagokio, ordainketa data adieraziz. . Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsiaren arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira (III.eranskina).

Proposatutako jarduerak egiteko, erakunde eskatzaileak obrak, zerbitzuak edo hornidurak kontratatu behar baditu, lehen kasuan 39.999,00 eurotik (BEZik gabe) eta bigarrenean eta hirugarrenean 14.999,00 eurotik (BEZik gabe) gora, gutxienez hiru hornitzaile ezberdinei eskatu beharko die eskaintza egiteko, obra egin, zerbitzua eskaini edo ondasunak emateko konpromisoa hartu aurretik, eta hala egin duela egiaztatu beharko du, salbu eta haren ezaugarri bereziak direla eta merkatuan ez badago lan hori egin, zerbitzu horiek eskaini edo ondasun horiek hornitzen dituen aski erakunde, edo diru-laguntza eman aurretik gastua egina badago.

Izan diren eskaintzak diru-laguntzaren zurigarrietan edo eskaeran bertan aurkeztu behar dira eta aukeraketa eraginkortasun eta ekonomia irizpideak jarraitu behar ditu. Esleipena proposamen ekonomiko abantailatsuenari ez badagokio, hau espreski aukeraketa memoria batean justifikatu beharko da.

Dirulaguntza ematen duen organoak, egokitzen jotzen dituen laginketa-tekniken bidez egiaztatuko ditu justifikaziorako egoki deritzan agiriak eta dirulaguntza behar bezala erabili dela. Horretarako, onuradunari eskatu diezaioke berak hautatutako gastu frogagiriak bidaltzeko.

Diruz lagundutako jardueretan kantitate txikiko gastuetan faktura osoak aurkezteko zailtasunak daudenean, faktura sinplifikatuak (tiketa) onartu daitezke hauekin batera elkarkearen aitortpena aurkeztuz jarduerarekin loturiko gastuak direla eta betik ere fakturatzeko betebeharra arautzen duen Erregelamendua, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak jarraituz. (IV. Eranskina).

C) Lortutako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideek finantzatzekoak ziren jardueren kostuak ez dituztela gainditzen adierazten duen erantzukizuneko aitortpena. (IV.eranskina).

D) Helburu berdinerako beste laguntzarik jaso ez izanaren ziurtagiria, edota bestela, adierazi bereziki zer laguntza jaso diren. (IV. Eranskina).

15- EGIAZTATZEKO EPEA

Aurreko artikuluan eskatutako agiriak, 2027ko urtarilaren 31rako aurkeztu beharko dira.

16- BETEBEHARRAK EZ BETETZEA

Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharretakoren bat ez betetzeak erabakia berrikustea ekarriko du eta hala behar izanez gero, emandako dirulaguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea.

17- DATU BABESA

Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera izango da.

18- APLIKATUKO DEN ARAUDIA

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio prozedura Erkidearena aplikatuko da.

19- EBAZPENA ETA HELEGITEAK

Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hala hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko.

Honako oinarri hauen aurka berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

Aipatu epeak oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenba tzen bi kasuetan.

[Itzuli dagokion puntura](#)

2. ERANSKINA

DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK: EKOIZLEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO, BEZEROAK ERAKARTZEKO ETA UDAL-MERKATUAN ZUZENEKO KONTSUMOA SUSTATZEKO BONUAK SALTZEKO. .

ZIOEN AZALPENA

Udalaren helburua da, kontsumo kanpaina baten bidez, merkataritzaren jarduerari laguntzea Beasaingo azokaren esparruan, postuetan erostea sustatuz eta merkatua mantentzea eta garatzea bultzatuz.

1.XEDEA

Helburu horrekin, hainbat neurri jarriko dira martxan, besteak beste, udal-merkatuan kontsumoa sustatzeko bonuen salmenta.

Udalak udal merkatuan kontsumitzeko bonuak jarriko ditu salgai eta ekoizleei dirulaguntza emango zaie, horiek Udaletxean entregatu ondoren.

Oinarri hauek dirulaguntzak emateko prozedura arautzen dute.

Laguntza hauek arautzen dituen esparru juridikoa, funtsean, honako hauetan dago jasota:

-Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17,34) artikuluan, udalerraren eskumen propio gisa ondorengoa aurreikusten da: Barne-merkataritzaren antolamendua eta kudeaketa. Zehazki, merkatuak, hornidurak, azokak, lonjak, hiltegiak eta merkataritza ibiltaria antolatzeari eta kudeatzeari buruzkoa.

-Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.

-Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (GAO, 2018/06/14).

-Beasaingo Udalaren 2023-2025eko dirulaguntzen plan estrategikoa (6. Helburua: Garapen ekonomiko eta soziala sustatzea eta tokiko turismo sustatzea. 6.2 lerroa: Udalerriko merkataritza sustatzea, bultzatzea. Hurbileko produktuen merkataritza eta salmenta sustatzea).

2024an, udal-merkatuan kontsumoa sustatzeko laguntza-oinarriak onartu ziren, eta horretarako aurrekontuko kreditua agortu egin zen. Bestalde, 9 ekoizleren postutan erabili ziren bonu hauek. Horren ondorioz, ulertzen da helburu hori lortzen lagundu zutela.

2.FINANTZIAZIOA

Hurrengo oinarrietan ezarritako laguntzak finantzatzeko aurreikusitako aurrekontua 10.000 €-koa da.

Aurretiazko izapidetzea da, eta 887/2006 RGSren 56. artikuluan jasota, deialdiaren ebazpena oinarri hauek onartu eta argitaratu eta hurrengo ekitaldian emango baita; eta hori gertatzen da 2026ko aurrekontu-proiektuan kreditu hori aurreikusten delako.

Adierazitako zenbatekoa zenbatetsia da, eta, beraz, dirulaguntzak emateko, kreditu egokia eta nahikoa egon behar da, dirulaguntza emateko ebazpena ematen den unean.

3.BONUAK EROSTEKO BALDINTZAK

Bonuak adinez heldua den edonork eros ditzake, NAN edo AIZ aurkeztuta. Pertsona bakoitzak gehienez 2 bonu erosi ahal izango ditu salgai jartzen diren egun bakoitzean.

Bonuak dagokion postuan bakarrik erabili ahal izango dira.

Ez da onartuko bonuen itzulketa.

4. DIRUZ LAGUN DAITEKEEN EKINTZA, BONU MOTA, NON, NOIZ ETA EROSTEKO ETA ERABILTZEKO EPEA

4.1. Diruz lagun daitekeen jarduera

Diruz lagundu ahalko dira ekoizleen postuetan produktuak erosteagatik sortzen diren gastuak, astearteroko eta hilabete bakoitzeko lehen larunbatetako azokan.

4.2. Bonu-mota

Bonuek 20€-ko balioa izango dute guztira, eta 5€-ko 4 zatitan banatuta egongo dira.

Bonuak 10€-ko kostua izango du eta eskudirutan ordainduko da, baina bere balioa 20€-koa izango da.

4.3. Bonua eskuratzeko tokia eta egunak:

2026ko otsailaren 3an, otsailaren 7an, martxoaren 7an eta apirilaren 11n egingo diren azoketan.

4.4. Bonua erabiltzea:

Bezeroak bonua, osotasunean edo zatika, kontsumitu ahal izango du dagokion azokako postuan.

Erosketa-tiketaren zenbatekoak bonuaren edo horren zati baten zenbatekoaren berdina edo handiagoa izan beharko du, erosketa bakoitzean agortu dadin.

Inola ere ez da eskudirurik itzuliko.

Erabiltzeko epea igarotakoan (2026-12-15), bonuek balioa galduko dute ordainbide gisa. Erosleei ez zaie inolako kopururik itzuliko erositako eta erabili gabe geratzen diren bonuengatik.

5. EKOIZLEAK ATXIKITZEKO PROZEDURA ETA BALDINTZAK

5.1. Ekoizleak atxikitzea

Azokako bonu-programari atxiki ahalko zaizkio Beasaingo astearteko edo larunbateko azokako postuetako pertsona fisiko edo juridikoak, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

1. Astearteko edo larunbateko azokan parte hartzea (udal zerbitzuek egiaztatuko dute bertaratzea).
2. Udal Ogasunarekin zorrik ez izatea.
3. Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.

5.2. Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Bonu-programari atxikitzeko eskaera aurkeztu beharko da eskaera orria erabiliz

5.3. Eskaerak aurkezteko lekua:

Atxikitzeko eskaerak eta aurreko atalean adierazitako dokumentuak, iGunean aurrez aurre edo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez aurkeztu daitezke.

5.4. Atxikitako ekoizleen betebeharrak:

Azoka bonu-programara atxikitako ekoizleek honako konpromiso hauek hartzen dituzte bere gain:

- Kanpainaren seinaleak, irauten duen bitartean, postuaren leku ikusgarri batean jartzea eta kontsumitzaileei programaren ezaugarrien berri ematea.
- Bonua edo bonuaren zati bat erabili ondoren, ekoizlea izango da bonua behar bezala kudeatzearen arduraduna eta Udalari aurkeztu beharko dio. Alkateak ebazpena eta dagokion likidazioa egingo du. Bonua osotasunean aurkeztuz gero 20€ jasoko ditu, aldez, zatika aurkezten badu, zati bakoitzeko 5€-ko dirulaguntza jasoko du.

6. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Kultura, euskara eta merkataritza azpisailari dagokio aurreikusten diren ekoizleei ematen zaizkien laguntzak kudeatzea. Saileko teknikariak arduratuko dira aurkeztutako eskabideak aztertzeaz eta ebaluatzeaz, besteak beste, egiaztatuko dute onuradunek ondorengo baldintzak betetzen dituztela:

-38/2003 Legeak (Diru-laguntzen Lege orokorrak) 13. artikuluan aurreikusten dituen debekuetako batean ere sartuta ez egotea.

-Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzaren egunean egotearen egiaztagiria eta Beasaingo udalarekin zorrik ez izatea.

Udalak, baldintza horiek betetzen direla bitartekaritza-plataformen (NISAE) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko ditu, ekoizle onuraduna horren aurka azaldu ezean:

- Poliziaren Zuzendaritza Nagusia: Nortasun-datuen kontsulta.
- Gipuzkoako Foru Aldundia: Zerga-betebeharrak egunean izatearen kontsulta.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izatearen kontsulta.
- Beasaingo Udala: zerga betebeharretan egunean egotea.

Ekoizle onuraduna horren aurka azalduz gero edo Udalarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik ezin bada informazioa lortu esandako moduan, eskatzaileari errekerituko dio adierazitako betebeharrak betetzearen egiaztagariak aurkezteko.

Alkatearen ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak eta eskatzaileari horren berri jakinaraziko zaio, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik hilabeteko epean.

Ordainketa, Alkateak dirulaguntzaren ebazpena ematen duenetik hilabeteko epean egingo da.

7. DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan, Udalari jakinarazi beharko zaio.

8.OINARRIAK ARGITARATZEA ETA ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Oinarriak BDNSra bidaliko dira eta ondoren GAO n argitaratuko dira.

Ekoizleek eskaerak aurkezteko epea eta modua:

- Epea: 2026ko urtarrilaren 1etik 28ra.
- Modua: Oinarri hauetako 5.3 puntuan adierazitakoa.

9. DIRULAGUNTZEN BALDINTZAK EZ BETETZEA

Kasu honetan ez dagokio, dirulaguntza osoa zuriketa egin ondoren ordainduko delako.

10.DATUEN BABESA

Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren araberrakoa izango da.

11. APLIKATUKO DEN ARAUDIA

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena aplikatuko da.

12.HELEGITEAK

Honako oinarri hauen aurka berraztertze ko errekurts oia aurkez daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

[Itzuli dagokion puntura](#)

3. ERANSKINA

GIDABAIMENAREN AZTERKETA TEORIKOA EUSKARAZ GAINDITZEN DUTEN BEASAINDARREI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK

ZIOEN AZALPENA

Beasaingo Udalak, euskararen erabilera sustatzeko asmoarekin, herritarrei erraztasunak eman eta animatu nahi ditu, gidabaimena prestatzeko eta azterketa teorikoa euskaraz egiteko.

Autoeskolak aspalditik ari dira azterketa teorikoa euskaraz prestatzeko eskaintza egiten. Beraz, dirulaguntzak emango zazikie 2025. urtean azterketa teorikoa euskaraz gainditu dutenei, urtarrilaren 1etik abenduaren 12ra arte.

1. XEDEA

Oinarri hauen helburua da gida-baimen lortzeko azterketa teorikoa euskaraz egiteko matrikula-gastuaren zati bat ordaintzen laguntzea, aipatutako epealdian gainditu duten eta gainditzten duten eskatzaileei.

Laguntza hauek 2023-2025 urteetarako onartutako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan daude aurreikusita, zehazki ondorengo helburu estrategikoan: 3. EUSKARAREN IKASKUNTZA ETA ERABILERA BULTZATZEA ETA NORMALIZATZEA eta 3.2 EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEA, lerroan.

2. FINANTZIAZIOA

Deialdi honetako helburu diren dirulaguntzak finantzatzeko Udalak 3.000,00 euroko kreditua aurreikusita du, horretarako sortutako aurrekontu honetan: *0230.480.335.30.02 Gidabaimena euskaraz ateratzeko.*

Baimendutako gastuaren zenbatekoa (3.000,00 €) handitu ahal izango da aldaketaren zenbatekoa dela eta eskumena esleituta duen organoaren aldetik baina beti ere aurkeztutako eskabideak ebatzi aurretik. Horrek ez du beste deialdirik ekarriko.

3. ONURADUNAK

Dirulaguntza honen onuraduna izateko, eskatzaileak Beasaingo udalerrian erroldatuta egon behar dira eta 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 12ra doan epealdian, gidabaimena lortzeko azterketa teorikoa euskaraz gainditu beharko dute.

4. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntzen eskatzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Beasainen erroldatuta egotea gidabaimena ateratzeko ikastaroaren matrikula egin baino bi hilabete aurretik eta dirulaguntza-eskaera ebatzi arte erroldatuta jarraitzea.
- Gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz gainditzea, 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 12ra arte.
- Beasainen egoitza soziala duen autoeskoletako batean matrikula egin izana.

Honako hauek ere ezin izango dira dirulaguntza hauen onuradun izan:

- Dirulaguntzei buruzko abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 artikuluan aurreikositako egoeraren batean dauden pertsonak.
- Beasaingo Udalarekin hartutako zorrak premiamendu bidez kobratzeko prozeduretan sartuta dauden partikularrak, ezta Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean ez dituztenak ere, harik eta zor horiek benetan ordaindu eta kitatu edo bete arte, salbu eta zor horiek geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda dagoenean.
- Zigor edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuak izan direnak, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean badaude, - 1/2023 Legegintzako Dekretuan, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen

aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena Legearen arabera sexu-bereizkeriagatik gertatutakoak barne.

- Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharretan eguneratuta ez daudenek.

5. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Dirulaguntzak 4. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei emango zaizkie.

Kultura, euskara eta Merkataritza azpisailari dagokio aurreikusten diren laguntza kudeatzea. Saileko teknikariak arduratuko dira aurkeztutako eskabideak aztertzeaz eta ebaluatzeaz. Alkatearen ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak eta eskatzaileari horren berri jakinaraziko zaio.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gehienez bi hilabeteko epean persona interesdunari hartutako erabakia jakinaraziko zaio.

Ordainketa Alkateak dirulaguntzaren Ebazpena ematen duenetik hilabeteko epean egingo da.

6. DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan zehaztutako Dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan Udalari jakinarazi beharko zaio. Hala ere, ezin daiteke inola ere gainfinantziazio kasurik izan; hau da, beste entitateekin batera dirulaguntza moduan emandako kopurua ezin da gastuaren balioa baino handiagoa izan.

7.- DIRUZ LAGUNDUKO DEN GASTUA ETA DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA.

Matrikula gastua lagunduko da, baina ez tasak.

Laguntza ez da izango eskatzaileak egindako gastua baina handiagoa eta gehienez 150,00 €-koa izango da.

8. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Ondorengo agiriak aurkeztu behar dira:

- a) Eskabidea (I. eranskina) behar bezala beteta eta nahitaezko agiriak epe barruan aurkeztea.
- b) Beasaingo autoeskola batean gidabaimena lortzeko ikastaroaren matrikula ordaindu izanaren agiria.
- c) Autoeskolak emandako ziurtagiria, azterketa teorikoa euskaraz gainditu dela egiaztatzen duena.
- d) Bestelako administrazioei eta erakunde publiko edo pribatuei egindako dirulaguntza eskaeren zein jadanik emanda dauden dirulaguntzen gaineko zinpeko aitortpena.
- e) Eskatzaileak duen bankuko kontuaren titulartasuna egiaztatuko duen agiria.

9. DOKUMENTAZIO ELKARRERAGILEA ETA EGIAZTAGARRIA

1. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen

dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

2. Beasaingo Udala Euskadi Nisae-ko administrazioen elkarreragingarritasun- eta segurtasun-korapiloaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzeko eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

3. Deialdi honetan, Beasaingo Udalaren esku dauden ondorengo datuak kontsultatuko dira:

- a) Errolda agiria
- b) Beasaingo Udalarekin zerga betebeharrak eta bestelako zorreetan egunean egotea.

Eta horiez gain, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:

- a) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- b) Egunean izatea zerga-betebeharrak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuarekin egiaztatuko direnak.

4. Eskatzailea egiaztapen horren aurka badago, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

10. ESKABIDEAK AURKEZTEA

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAOOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita aurkeztu ahal izando dira eskabideak.

Eskatzaileak azterketa teorikoa gainditu ondoren egin beharko du dirulaguntza eskaera.

Epea: eskabideak aurkeztu ahal izango dira oinarri hauek Gipuzkoako aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik 2025eko abenduaren 15era bitartean.

Modua: Dirulaguntza eskatzen duenak eskaera orria aurkeztu beharko du, behar bezala Beteta, bertan agertzen diren agiri guztiekin batera. Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez ahal izanez gero: <https://www.beasain.eus> edo Udalaren erregistroan, I. Eranskineko ereduaren arabera.

11. HELEGITEAK

Udalak ahalmena du oinarri hauek interpretatu eta ebazteko, baldin ete horien inguruan desadostasunik sortzen bada.

Honako oinarri hauen aurka berraztertzeko errekurtoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

Aipatu epeak oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenba tzen bi kasuetan.

[Itzuli dagokion puntura](#)

4. ERANSKINA

2025-2026eko GABONETAKO KARTEL-SARIKETARAKO OINARRIAK

ZIOEN AZALPENA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17,1 artikuluan, udalerriaren berezko eskumen gisa aurreikusten ditu:

20) Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea.

Ohi bezala, Beasaingo Udalak Gabonetako kartel lehiaketa bat antolatzen du Beasaingo ikastetxeetan bertan eskolatutako adingabeen sorkuntza artistikoa sustatzeko.

Gabonetako giroa sustatze aldera eta eskola-umeek Gabonei buruzko hausnarketa ludikoa egin dezaten eta euren inguruetan egun horiek nola bizi dituzten edo nola bizi nahiko lituzketen adierazi dezaten.

Proposamen-irabazle bakar bat egon ez dadin, baizik eta hainbat ideia edo planteamendu balora daitezen, ez da lan irabazle bakar bat egongo, 30 izango dira gehienez saritutako lanak.

Horretarako, sariak emateko oinarri hauek prestatu dira, honako hauek kontuan hartuta:

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (GAO, 2018/06/14).
- Beasaingo Udalaren 2023-2025eko dirulaguntzen plan estrategikoa (2. helburu estrategikoa: udalerriko kultura-jarduera sustatzea. 2.2 ildoak: kultur sorkuntzaren sustapena).

Beasaingo Udalak ikastetxeei jakinaraziko die lanak aurkezteko epea.

Egiaztatu da aurreko ekitaldian 2024-2025rako egindako deialdiarekin aurretik adierazitako helburua lortzen lagundu dela, honako hau kontuan izanda:

- Beasaingo ikastetxeen harrera ona eta inplikazioa.
- Ikasleen parte-hartze handia.
- Proposamenaren izaera pedagogikoa.

LEHENA. XEDEA

Oinarri hauen helburua da sorkuntza artistikoa eta irudimenaren garapena sustatzea adin txikietan, Gabonei buruzko hausnarketa eragiteaz gain, data horiek oso modu desberdinetan bizi baitira.

BIGARRENA. AURREKONTUA

2025eko aurrekontuan, 0260.227.337.21.01 aurrekontu-partidan, 900,00 €ko aurreikuspena egin da, honako oinarri hauetan ezarritako sariak finantzatzeko:

Deialdiaren ebazpena 2025ean egingo da.

Sariak 2026an ordainduko dira, 2025eko aurrekontu-estalduraren kontura.

HIRUGARRENA. PROZEDURA

Prozedura jendaurrekoa da 6 eta 11 urte bitarteko ikasleak dituzten Beasaingo ikastetxeentzat.

Horretarako eratutako epaimahai batek ebaluatuko ditu lanak.

LAUGARRENA. PARTEHARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK

- 6 eta 11 urte bitarteko ikasleak dituzten Beasaingo ikastetxe guztiei zuzenduta.
- Euskarri bezala bakoitzak nahi duen materiala erabil dezake: papera, egurra, kartoia...
- Teknika librea izango da baina, irudia koloreetan egin behar da.
- Haur bakoitzak lan bakarra aurkeztuko du.
- Formatu horizontala ezinbestekoa da.
- A3 baino tamaina handiagoa ez da onartuko.

Honako hauek ezin izango dira sari hauen onuradun izan:

- Lege honetako 2. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean dauden pertsonak edo erakundeak. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikulua (2003ko azaroaren 18ko BOE).

- Beasaingo Udalarekin hartutako zorrak premiamendu bidez kobratzeko prozeduretan sartuta dauden partikularrak edo erakundeak, ezta Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean ez dituztenak ere, harik eta zor horiek benetan ordaindu eta kitatu edo bete arte, salbu eta zor horiek geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda dagoenean.

- Zigor- edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuak izan direnak, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean daudenak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-bereizkeriatik gertatutakoak barne.

Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria.

- Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

- Beasaingo Udala Euskadi Nisae-ko administrazioen elkarreragingarritasun-eta segurtasun-korapiloaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatze eta lortze aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

- Deialdi honetan, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:

a) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

b) Egunean izatea zerga-betebeharrak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuarekin egiaztatuko direnak.

Saritutako hezkuntza-erakundeak egiaztapen horren aurka azaltzen bada, edo Udalarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik ezin bada informazioa adierazitako moduan lortu, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago, gehienez hamar eguneko epea dago huts horiek zuzentzeko edo nahitaezko dokumentazioa ekartzeko, udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Horrela egin ezean, eskaria atzera botako da.

Emandako epea igaro eta akatsak zuzendu ez badira, diru-laguntzarako eskabidean atzera egin dela ulertuko da, eta beste izapiderik gabe artxibatuko da eskaera.

BOSGARRENA. OINARRIAK ARGITARATZEA

Oinarri hauek BDNSra bidaliko dira Udaleko osoko bilkurak onartu ondoren, eta ondoren GAO-n argitaratuko dira.

Gainera, oinarriak eta deialdia Udalaren webgunean (www.beasain.eus) eta sare sozialetan argitaratuko dira

Zalantzak edo kontsultak kultura, euskara eta merkataritza azpisaila argituko dira.

SEIGARRENA. AURKEZTEKO MODUA

Parte hartzen duen ikastetxe bakoitzak Identifikazio Fiskaleko Txartelaren kopia bat aurkeztu beharko du.

Lanak Beasaingo Udaleko Kultura, Euskara eta Merkataritza Sailean utziko dira.

Lanak aurkezteko epea abenduaren 4an amaitzen da eguerdiko 13:00tan.

Lan bakoitzak kode bat izango du atzeko aldean. Hauek dira ezaugarriak:

MU: Murumendi

AL: Alkartasuna Lizeoa

LS: La Salle

AN: Andramendi

AS: Aspace

1: LH1

2: LH2

3: LH3

4: LH4

5: LH5

6: LH6

APB: Ainhoa Palacios Balerdi

MZS: Mohamed Zurutuza Subu

Adibidez,

LS5MRG izango da: La Salle ikastetxeko, 5. mailako Maria Ruiz Garmendia ikaslea.

Udalak kode irabazleak jakinaraziko dizkio ikastetxe bakoitzari. Aurkeztutako lan horiekin batera, ikastetxe bakoitzak bere zerrenda osatuko du ikasle bakoitzaren kodea zein den ezagutzeko.

ZAZPIGARRENA. EPAIMAHAIAREN OSAERA

Epaimahaiadeak:

- Herritarren arloko zinegotzia delegatua.
- Komunikazioko teknikaria
- Berdintasun eta gazteria azpisaila teknikaria
- Kultura eta Euskarako koordinatzailea.
- Marrazketa gaian aditua den pertsona bat.

Beraien erabakia eztaba daezina izango da.

ZORTZIGARRENA. BALORAZIO IRIZPIDEAK

- Gabonekin lotura izatea
- Euskal Herriko ohiturekin lotura izatea
- Genero ikuspegia kontuan izatea.
- Sormena
- Originaltasuna
- Teknika

BEDERATZIGARRENA. LEHIAKETAREN EBAZPENA ETA SARI BANAKETA

Guztira 30 kartel sarituko dira.

Ikastetxe bakoitzeko eta Ikasketa maila bakoitzeko saridun bat egongo da. Hau da ikastetxe bakoitzak sei sari jasoko ditu.

Hogeita hamar kartel irabazleek 30na euroko bonua jasoko dute sari modura. Bonua Beasaingo establezimendu hauetan erabiliko da:

- Mirentxu Liburu Denda
- Jon Aranburu kioskoa
- Arteka
- Goierri kopiak

Bonuak 2026ko otsailaren 28rarte erabili ahal izango dira aipatutako establezimenduetan.

Alkateak ikastetxeei sariak emateko ebazpena 2025-12-15a baino lehen emango du, horiek irabazleei jakinarazteko sariak banatu aurretik.

Epaimahaiaren erabakia Beasaingo Udalaren web orrian argitaratuko da, gainontzeko partehartzaileak eta publiko orokorra jakinaren gainean egon daitezen.

HAMARGARRENA. DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan, Udalari jakinarazi beharko zaio.

HAMAIKAGARRENA. KARTELAK ERABILTZEKO BAIMENA

Beasaingo Udalak, argazkiak erreproduzitzeko, banatzeko eta jakinarazpen publikoan erabiltzeko eskubidea izango du. Egileak, eskubide horiek uztearen truke, inoiz ezingo du lehiaketako sariaz gain beste ordainsaririk eskatu.

Ikastetxe bakoitzak aurkeztutako lan guztiak jaso ahal izango ditu 2025eko otsailean Udaleko Kulturako bulegoetatik.

Epe hori amaituta, Udalak, lan guztiak suntsitu ahal izango ditu.

HAMABIGARRENA. DATU PERTSONALEN BABESA ETA IRUDI-ESKUBIDEAK

Datu pertsonalak, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa kontuan izanik arabera tratatuko dira.

Datu pertsonalak tratatzeko legitimazioa interesdunaren berariazko baimenean eta lehiaketaren oinarri arautzaileen onarpenean oinarritzen da (DBEOaren 6.1.a). Halaber, adostasuna kendu ahal izango da, aldeztu aurretik egindako tratamenduen zilegitasunari eragin gabe.

Parte-hartzaileek beren informazio pertsonalaren egiazkotasuna, zehaztasuna, indarraldia eta benetakotasuna bermatu eta erantzuten dute, eta 3/2018 Lege

Organikoak eskatzen duen berariazko baimena lortu izana, aurkeztutako obren irudietan agertzen diren pertsonen dagokienez.

Halaber, parte-hartzaileek bermatzen dute 1/1982 Lege Organikoaren, maiatzaren 5ekoa, ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilari buruzkoa, eskakizunak betetzen dituztela, eta beren obretan hirugarrenen irudia erabiltzeko legezko baimena eta/edo gaikuntza dutela.

Datuak lehiaketa kudeatzeko beharrezkoak diren bitartean gordeko dira, eta, amaitu ondoren, legeek edo nahitaez bete beharreko arauak ezarritako betebeharrak eta erantzukizunak betetzeko lege ezarritako epeetan, edo agintaritza eskudunak, zuzenbidearen arabera, hala eskatzen duenean.

Tratatzen ditugun datuak beharrezkoak dira lehiaketa kudeatzeko, lehiakideekin harremanetan jartzeko eta saria emateko. Ez da erabaki automatizaturik hartuko datuetan oinarrituta, eta ez dira erabiliko pertsonaren profila egiteko.

Datu pertsonalak ez dira hirugarrenei komunikatuko, ezta hirugarren herrialdeei edo nazioarteko erakundeei transferituko ere.

Tratamenduaren arduraduna Beasaingo Udala da. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatze, mugatzeko edo horien aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dira Beasaingo Udalaritik idatzizko eta sinatutako eskaera bat bidaliz honako posta-helbide honetan: Loinazko San Martin Plaza, 1, 20200 – Beasain (udala@beasain.eus). Halaber, kontrol-agintaritzan erreklamazioa jartzeko eskubidea dago (<http://www.avpd.euskadi.eus>).

HAMAHIRUGARRENA. APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA.

Deialdi honetan aurreikusita ez dagoen guztirako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea aplikatuko da.

HAMALAUGARREN. EBAZPENA ETA ERREKURTSOAK.

Deialdi hau administratiboa da, eta, beraz, Udalak ahalmena du hura interpretatzeko eta aplikaziotik edo ebazpenetik sor daitekeen edozein desberdintasun ebazteko.

Honako oinarri hauen aurka berraztertze errekurtoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

Aipatu epeak oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenba tzen bi kasuetan.

[Itzuli dagokion puntura](#)

Eta tratatzeko besterik ezean bilera arratsaldeko zazpiak eta hogeita bostetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut

